KIROLA: OTALA-ZELAIKO KROSA DOMEKAN URKULUN /11

# Goienkaria

EGUAZTENA • 2003ko apirilaren 30a • IV. urtea • 107. zenbakia • DOAN BANATZEKOA



**Goienka2a**
**Betizu taldea: gazteak bezain arrakastatsuak**

**KULTURA**
**Oñatiko Ganbara abesbatzak irabazi du Ejeako txapelketa /15**

**FELIX ORMAETXEA**
*"Kalitateko hezkuntza barik beste proiektu asko ez direla posible esango nieke erakundeei"* **/9**

**ERDIALDEAN: AUTOEI BURUZKO GEHIGARRI BEREZIA, AUTO BERRIENEN GAINEAN**

ASTEKO GAIA: UDAL ETA BATZAR NAGUSIETAKO HAUTESKUNDEAK IZANGO DIRA MAIATZAREN 25EAN/2-4

# Ibarreko alderdiak gertu daude hauteskundeetarako

Alderdi politikoek gertu dituzte euren zerrendak datozen maiatzaren 25eko hauteskundeetarako. Udaletarako eta Batzar Nagusietarako ordezkariak aukeratuko ditugu egun horretan.

Debagoieneko herriotako ordezkari politikoek ere izan dute nahiko zeregin Aste Santuko tartean. Apirilaren 23an onartu zituzten hautagaien zerrendak, hauteskundeotan aurkeztuko direnak. Zerrendok hainbat berritasun azaltzen dituzte, Debagoienari dagokionez. Esate baterako, bederatzi alkateotatik lau baino ez dira berriro aurkeztuko; beste bostek utzi egingo dute kargua, eta izen berriak izango dira lehian hauteskundeotan.

- *Apirilaren 23an onartu zituzten behin betiko zerrendak*
- *Guztira 45 alkategai izango dira aukeran Debagoienean*
- *Hiru debagoiendar zerrendaburu dira Batzar Nagusietarako*
- *Herri plataformak eta Aralar taldea dira berritasun nagusiak*

Bestalde, herri bakoitzean plataforma bana osatu dute. Kontuan hartu behar da, era berean, Aralar alderdi politiko osatu berriak Debagoieneko lau herritan aurkeztu dituela zerrendak.

Batzar Nagusietarako hauteskundeei dagokienez, debagoiendarrek izango dute zeresana. Izan ere, 22 debagoiendar daude Urola-Deba barrutiko, Gipuzkoako beste gune batzuetako eta Arabako Tierras Esparsas barrutiko zerrendetan. Horietatik lau zerrendaburu bezala aurkezten dira.



**Oraingo astean zozketatu dituzte hauteskunde egunean mahaietan egon beharko direnen izenak. Argazkian, Elgetan martitzenean eginiko zozketaren irudi bat.** EDU MENDIBIL

MAIATZAREN LEHENA

## Sindikatu nagusiek batera ospatuko dute langileen eguna

ELAk eta LABek batera ospatuko dituzte Maiatzaren Leheneko ekitaldiak, eta ESK-k ere bat egingo du sindikatu horiekin, Bilbon. Bestalde, CCOOk eta UGTk ere elkarrekin ospatuko dute eguna, hiriburuetan. Debagoienean, hortaz, ez da ekitaldirik egongo Maiatzaren Lehenean.

*Demokrazia, justizia eta autodeterminazioa* izango da ELA, LAB eta ESKren leloa. CCOO eta UGTrena, berriz, *Lan egin bizitzeko eta ez bizia galtzeko.* **/6**

POLIZIA OPERAZIOA

## Zortzi lagun atxilotu dituzte Udalbiltzaren aurkako operazioan

Ezker abertzaleak kudeatzen duen Udalbiltzaren aurkako polizia operazioan zortzi lagun atxilotu zituzten atzo, martitzena, Baltasar Garzonen aginduz. Horrez gainera, Bilbo, Gasteiz, Astigarraga eta Iruñeko egoitzak arakatu eta itxi egin zituzten. Operazio horrengatik protesta egiteko, Udalbiltzak bilkura isilak deitu ditu gaurko udaletxe aurrealdeetan, *Bai Udalbiltzari* lelopean. Atzo arratsaldean batzarrak egin zituzten ibarrean.

Oraingo astean ez duzue herrietako ediziorik jasoko; hau da, zuen herriko aldizkaria ez duzue aurkituko erdiko orrialdeetan. Aste Santuko oporrak eta Maiatzaren Leheneko zubi luzea direla-eta, egun gutxiago izan ditugu GOIENKARIA egiteko oraingo astean.

DEBAGOIENA/6 • HERRIZ HERRI/7 • IRITZIA/8 • KIROLA/10-11 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 • DENBORA-PASA/21 • IKUS-ENTZUNEZKOAK/22

Arizmendi
ikastola
BATXILERGOAK

# Alderik alde zabalik

[ maiatzaren **2**tik **9**ra ]

Lau Ibilbide:

**Batxilergo Teknologikoa:** Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak transferituta.

**Natur eta Osasun Zientziak:** Irteera anitzak eskeintzen ditu. Esperientzia luzea modalitate honetan.

**Giza eta Gizarte Zientziak:** Metodologia ikerketa dokumentalean oinarrituta (IDZ zentruetan).

**Batxilergo Formatiboa:** Ikasketa hauen helburua goi mailako heziketa zikloetan ikasleak arrakastaz txertatzea da.



***Batxilergoan aurrematrikula epea***

zabalik

Informa zaitez!

902 11 20 25

# Hauteskunde egunerako gertu

- Dagoeneko alderdi guztiek eman dituzte aditzera euren zerrendak
- Debagoienean 109 zinegotzi aukeratu beharko ditugu maiatzaren 25ean
- Oraingo lau alkate bakarrik aurkeztuko dira berriro hauteskundeotara

LEIRE KORTABARRIA

Maiatzaren 25ean izango dira, Euskal Autonomia Erkidegoan, Udal eta Batzar Nagusietarako gure ordezkariak aukeratzeko hauteskundeak. Horri begira, guztia oraindik ez, baina zerrendak, behintzat, gertu dituzte dagoeneko alderdi politikoek.

Aste Santuko etenaldia aprobetxatu dute alderdi askok euren zerrendak eta alkategaiak ezagutzera emateko, kasu batzuetan, jende aurreko aurkezpen ekitaldien bidez. Herri guztietan sortutako herritarren plataformek, adibidez, ekitaldi publikoak antolatzea erabaki dute euren zerrendagaiak aurkezteko: Oraingo astean aurkeztu dituzte, esaterako, Bergara Aurrera eta Oñatriko Ereitten plataformen zerrendak; Oñatiko EAJ-EAkoak, Elgetako Aralarrekoak, Ezker Batuako Debagoieneko alkategaiak, eta Artetxabaleta eta Eskoriatzako PSE-EEko alkategaiak.

Aralar alderdia lehenengo aldiz aurkeztuko da hauteskundebatzuetara. Ibarreko lau herritan aurkeztu ditu zerrendak: Arrasaten, Bergaran, Aretxabaletan eta Elgetan.

Udal hauteskundeez gain, ordea, Batzar Nagusietarako ordezkariak aukeratzeko hauteskundeak izango dira egun berean, eta mota horretako ekitaldirik ere izan da: Autodeterminazioaren Bilgunea erakunde berriak (AuB), esate baterako, ekitaldi politikoa egin zuen joan den domekan, hilaren 27an, Intxortan.

Opor aurretik ere beste alderdi batzuek aditzera eman zituzten euren zerrendak. Kontuan hartu behar da zerrendak gertu izateko legeak ipintzen zuen epea apirilaren 23an betetzen zela, egun horretan argitaratu behar ziren-eta zerrenda guztiak bakoitzari zegokion Buletin Ofizialean.

**BOST ALKATEK UTZI EGINGO DUTE**

Udal hauteskundeei dagokienez, berritasun asko daude.



**AUB-REN EKITALDIA DOMEKAN** **Autodeterminazioaren Bilguneak (AuB) ekitaldia egin zuen joan den domekan, apirilaren 27an. Hain zuzen ere, Intxorta mendira irteera egin zuten. Elgetatik abiatu ziren, eta euskal tropek mendian egindako trintxeren aztarnak ikusi zituzten. Eguerdian, Asentziorako bidegurutzean, gudarien omenezko monolitoan ekitaldia egin zuten, eta, Elgetara bueltan, ekitaldi politikoa. Inazio Arregi AuBko Gipuzkoako zerrendaburuak, Ainhoa Agirreazaldegi bertsolariak eta Maria Pérez historialariak hartu zuten parte.**

Une honetan Debagoienean alkate direnen artean lau bakarrik aurkeztuko dira berriro ere: Xabier Zubizarreta (Arrasate, Herri Anitza plataforma), Victoriano Gallastegi (Bergara, EAJ-EA), Patxi Basauri (Elgeta, EAJ-EA) eta Mireia Unamuno (Antzuola, Gertu gae herri plataforma). Beste guztiek utzi egingo dute kargua, eta honako hautagaiak aurkeztuko dituzte herri horietan gehiengoa duten alderdi politikoek: Andoni Gartzia (Oñati, EAJ-EA), eta Mertxe Mondragon (Aramaio, EAJ-EA). Aretxabaletan eta Eskoriatzan oraingo alkateak Batasuna alderdiarekin aurkeztu ziren, baina aurten ez dira berriro aurkeztuko beste inongo talderekin. Hala ere, hautagai berririk izango dituzte bi herriotako boto-emaileek. Esaterako, Aretxabaletan Aretxa plataforma sortu berriak Iñaki Iturri proposatuko du; Eskoriatzan Kontzeju taldeak Dorleta Kortazar aurkeztuko du zerrendaburu.

*Aste Santu osteko egunak aprobetxatu dituzte alderdi askok aurkezpen ekitaldiak egiteko*

*Herri plataformek esan dute arazo judizialen gainetik ere aurkeztu egingo direla*

*Berritasun asko daude aurtengo hauteskundeotan: herri plataformak, Aralar alderdia…*

**HERRI PLATAFORMAK**

Beste berritasun nagusia azken boladan izandako erabaki judizialen aldetik dator. Izan ere, Batasuna alderdiaren legez kanporatzea azken egunotan jarri da indarrean, aspalditik jakina zen moduan. Auzitegi Nazionalak aditzera eman duenez, ordea, horrek eragina izan dezake hauteskundeotan; izan ere, aditzera eman dutenez, orain dela gutxi sortutako herri plataformek "Batasuna alderdiarekin duten ideia antzekotasuna dela-eta", litekeena da plataformon aurkako neurriak indarrean jartzea. Horren aurrean, herri plataformek edozelan ere hauteskundeetara aurkeztuko direla jakinarazi dute, bere bozka-paperak egin eta etxeetan banatuz.

Lege erabaki horiek antzeko eragina izan dezakete AuB taldean eta Batzar Nagusietara aurkezteko bere asmoan.

Legez kanporatze horrek egoera bereziak sor ditzake hainbat herritan. Gipuzkoako herri jakin batzuetan, orain arte, betidanik ezker abertzaleko alderdiak izaten ziren hautagai bakarrak; horrenbestez, alkatea beti alderdi berekoa izaten zen. Aurten, ordea, PP alderdiak herri guztietan aurkeztu ditu zerrendak. Orain, herri plataformei aurkeztea galarazten bazaie edo aukeratutako pertsonari alkate izatea galarazten bazaio, alkatea PP alderdikoa izango dela ohartarazi dute hainbat taldek. Debagoienean bi talde bakarrik aurkezten diren horrelako herririk ez dago; bai, ordea, antzerako kasu bat: Leintz Gatzagan zerrenda independente bat eta PPko zerrenda aurkezten dira.

**DEBAGOIENEKO EGOERA**
Esan bezala, Alderdi Popularrak erabaki du Euskal Autonomia Erkidegoko herri guztietan aurkeztea zerrendak. Alderdi horretako Debagoieneko ordezkariek GOIENKARIAri komentatu diotenez, alderdi horrek "arazo larriak" ditu herri bakoitzeko hautagaiak aurkitu ahal izateko. Hori dela-eta, Debagoienean ere, herri guztietan aurkezten diren arren, kasu bakar baten ere ez dute herriko bertako alkategairik aurkeztu.

Kontua da, ordea, Alderdi Popularra izango dela Debagoieneko herri guztietan aurkezten den alderdi bakarra. Beste alderdiak kontuan hartuta, EAJ-EA koalizioa, PSE-EE eta herri plataformak zortzi herritan aurkeztuko dira: guztietan Leintz Gatzagan izan ezik. Ezker Batua Arrasaten, Bergaran, Aretxabaletan eta Eskoriatzan eta, aurten lehenengo aldiz, Oñatin ere, izango da hautagai. Bestalde, herri batzuetan herriko bertako taldeak izango dira hautagai: esaterako, Elizateak Eskoriatzan –hango hainbat auzotako ordezkariek osatutako hautes taldea–; edo talde independentea Gatzagan –talde horretan Eugenio Otsoa urte askoan herriko alkate izandakoa ere agertzen da–; horrek ez du esan nahi, ordea, bera izango denik alkate, izan ere, Gatzagan, zerrenda irekien sistema dago indarrean, eta hautesle bakoitzak bere aukerako lau hautagai aukera ditzake. Bestalde, Aramaion, Unidad Alavesa alderdia ere aurkeztuko da.

Aurtengo beste berritasun nagusia, ordea, Aralar talde sortu berria izango da. Alderdi horrek aurreratu bezala, ez da Debagoieneko herri guztietan aurkeztuko: Arrasaten, Bergaran, Aretxabaletan eta Elgetan izango ditu hautagaiak. Hain zuzen ere, Aralarrek aurkezten du Debagoieneko alkategairik gazteena: Oxel Erostarbe, 24 urteko elgetarra.

**45 ALKATEGAITIK 15, EMAKUMEAK**
Beste datu interesgarri bat da aurten alkate izateko lehian izango den emakume kopurua. Debagoienean 45 alkategai izango dira bederatzi herritan; horietatik 15 emakumezkoak dira, hau da, hautagai guztietatik hiruren bat: hiruna Antzuolan eta Aretxabaletan; bina Arrasaten eta Elgetan; eta bana Bergaran, Leintz Gatzagan, Aramaion, Oñatin eta Eskoriatzan. Oraingoz, ibarrean emakumezko alkate bakarra dugu: Mireia Unamuno (SA) antzuolarra, hain zuzen ere.

Udal hauteskundeekin bukatzeko, esan beharra dago, nahiz eta zerrendak aditzera emanda eta onartuta egon, euren hautagaiak eta eskaintza politikoa hautesleei aditzera emateko alderdiek antolatutako ekitaldiak ez direla bukatu, eta egunotan ere izan dela, horren harira, mugimendua Debagoienean. Hauteskunde egun bezperara arte, ekitaldi piloa egingo dituzte alderdiok.

**BATZAR NAGUSIETARAKO, 22 IBARREKO**
Debagoiendarrek izango dute protagonismoa Batzar Nagusietarako hauteskundeetan ere.

Hauteskunde horiek ere maiatzaren 25ean izango dira, udal hauteskundeekin batera. Kasu horretan, lurraldeko hauteskundeak dira; izan ere, Foru Aldundirako ordezkariak aukeratzen dira.

Debagoienak Urola ibarreko herriekin batera osatuko du hautes barrutia. Deba-Urola barrutiak 14 batzarkide aukeratu beharko ditu. Hor ere alderdi bakoitzak bere zerrendak aurkezten ditu, eta debagoiendar dezente agertzen dira zerrendotan: hogei, hain zuzen ere. Horietatik hiru zerrendaburu bezala aurkezten dira: Iñaki Galdos oñatiarra (EAJ-EA), Jose Etxeberria arrasatearra (Aralar), eta Mireia Unamuno antzuolarra (AuB). Bestalde, Iñaki Nafarrate Aramaioko alkatea Arabako Batzar Nagusietara aurkeztuko da. EAJ-EAren zerrendaburua izango da Tierras Esparsas barrutitik.

**POSTA BIDEZKO BOTOA**
Hautesmahaietara joaterik ez dutenek ere izango dute botoa emateko aukera, posta bidez. Estatuan bizi izanez gero, maiatzaren 15era arte egongo da eskabidea egiteko aukera, edozein posta bulegotan; atzerrian bizi izanez gero, maiatzaren 5era arte.

Etorkizunean, bigarren aukera bat izango da Internet bidezko botoa. Hori garatzen ari da Eusko Jaurlaritza. Horretarako, munduko herri aurreratuenen egoera aztertzen ari da.

*Denetara 45 alkategai daude ibarrean, eta horietatik 15 emakumeak dira*

*Aralar alderdi sortu berria Arrasaten, Bergaran, Elgetan eta Aretxabaletan aurkeztuko da*

*Kanpoan bizi diren debagoiendarrek posta bidez eman ahal izango dute botoa*

*Batzar Nagusietarako hauteskundeetan ibarreko 22 lagun dira hautagai*

# Azken egunotan egindako aurkezpenak



**BERGARA / BERGARA AURRERA** Astelehenean aurkeztu zuten hauteskundeetarako zerrenda. Alkategaia Jesus Mari Garitano da, bigarrengoz jarraian; gainerako hautagaien artean aldaketa asko dago: Mikel Eguren —zerrendan hirugarrena— eta Aitor Goiti —bosgarrena— bakarrik aurkeztuko dira berriro. Bigarrena Mila Elortza da; laugarrena, Maite Guridi; seigarrena, Txema Arenaza; zazpigarrena, Ibai Redondo; zortzigarrena, Mireia Alberdi.



**ELGETA / ARALAR** Aralar alderdiak joan den astelehenean, hilak 27, aurkeztu zuen bere eskaintza Elgetan. Oxel Erostarbe alkategaiaz gain, Iban Retolaza zerrendako bigarren hautagaia eta Patxi Zabaleta Aralarko koordinatzaile nagusia izan ziren aurkezpen ekitaldian. Arrakastatsu oso izan zen ekitaldi hori, izan ere, ehun lagun inguru hurbildu ziren bertara. Alderdia bera, programa eta zerrenda aurkeztu zituzten.



**OÑATI / EAJ-EA** Joan den martitzenean, hilaren 29an, egin zuen EAJ-EA koalizioak bere aurkezpen ofiziala Oñatin, Andoni Gartzia alkategaiarekin eta Iñaki Galdos (Gipuzkoako EA) eta Juan Mari Juaristi (Gipuzkoako Buru Batzarreko presidentea) buruzagiekin. Jende dezente inguratu zen ekitaldira, kultura etxean.

Zerrendakoen artean, esperientziadun kideak eta politikara iritsi berriak daude, hortaz, bien ekarpena uztartzeko modua izango da.

# Alkategaiak eta zerrendako lehenak herriz herri

## ARRASATE

| HERRI ANITZA | EAJ-EA | PSE-EE | PP | IU-EB | ARALAR |
|---|---|---|---|---|---|
|  |  |  |  |  |  |
| **XABIER ZUBIZARRETA** | **INAZIO LAKUNTZA** | **BLANCA RONCAL** | **MARIA ICIAR LAMARAIN** | **JOSEBA UGALDE** | **JOXE ETXEBERRIA** |
| **Aretxabaleta** | **Arrasate** | **Burguete** | **Arrasate** | **Arrasate** | **Arrasate** |
| **59 urte** | **52 urte** | **53 urte** | **57 urte** | **51 urte** | **52 urte** |
| *1987tik aurrera alkate. Batzarkide bi legealditan.* | *MONEko zuzendaria. Ez du aurrekaririk politikan.* | *Arrasateko Udalekozinegotzia. PSE-EEko exekutiban.* | *Lehen aldiz hauteskunde zerrendetan.* | *EBko betiko kide. Azken zortzi urteotan, zinegotzi.* | *Langilea. Ez du politikan aurrekaririk.* |
| Utzune Urrizalki<br>Larraitz Trojaola<br>Jose Ramon Arkauz<br>Lander Olazabalaga<br>Juan Inazio Biain | Javier M. Nafarrete<br>Agustin Ugarte<br>Luis Etxebarriarteun<br>A. de Bedialauneta<br>Vicente Etxeberria | Francisco García<br>Matilde Martín<br>Ismael González<br>Isaias Carrasco<br>Jose Luis Herranz | Antonio Palacios<br>Eva Maria Segovia<br>Luis Paniagua<br>L. Portugués<br>M. Angeles Dueñas | Ander Rodríguez<br>Jose Antonio Baz<br>Angel Tijero<br>Julian Feo<br>Marisa Uriarte | Felix Hernández<br>Karmele Iparragirre<br>Jesus Angel Oskoz<br>Igor Bereziartua<br>Garazi Etxeberria |

## OÑATI

| EAJ-EA | EREITTEN | PSE-EE | PP | IU-EB |
|---|---|---|---|---|
|  |  |  | |  |
| **ANDONI GARTZIA** | **MARIJO ALTUBE** | **ANGEL HERNÁNDEZ** | **JUAN MARIA MINER** | **KARMELO PÉREZ** |
| **Oñati** | **Oñati** | | **Donostia** | **Oñati** |
| **41 urte** | **36 urte** | | **42 urte** | **37 urte** |
| *Garaiako gerentea. GBBko ibarreko arduradun.* | *Geyser enpresako langile. Lehen aldiz zerrendetan.* | | *Elektronikoa. Lehen aldiz zerrendetan.* | *Administraria. CCOO sindikatuarekin lan egin du.* |
| Ernesto Murgiondo<br>Ainhoa Galdos<br>Joxe Fernández<br>Angel Biain<br>Joseba Agirre | Juan Jose Egaña<br>Mikel Martín<br>Arantzazu Altzelai<br>Gaizka Arregi<br>Juan Pedro Egaña | Eneko Parra<br>Maria Rocio Acosta<br>M. Dolores Acosta<br>Domitila Martín<br>Anastasio Arbella<br>Atilano Soto<br>Alfonso Santibáñez<br>J. Miguel Lucas<br>Julian Gavino<br>Mariano Nieto<br>Felix Gallardo | Luis Alfonso Miner<br>M.C. Ortiz de Arce<br>Javier Petrement<br>Carmen Lafarga<br>Alvaro Huidobro | Jose Moto<br>Teresa Serrano<br>Jesus Martin<br>Maria Teresa Gracia<br>Victoria Cobas |

## BERGARA

| EAJ-EA | B. AURRERA | PSE-EE | PP | IU-EB | ARALAR |
|---|---|---|---|---|---|
|  |  |  |  |  |  |
| **VICTORIANO GALLASTEGI** | **JESUS MARI GARITANO** | **FRANCISCO JAVIER GARAI** | **ANGEL SANTANO** | **ANDRES DÍEZ** | **AINHOA LARRAÑAGA** |
| **Bergara** | **Bergara** | **Elgeta** | **Gasteiz** | **Bergara** | **Bergara** |
| **62 urte** | **56 urte** | **45 urte** | **46 urte** | **45 urte** | **30 urte** |
| *Mankomunitateko presidente. Hiru legealditan alkate.* | *Bigarren aldiz aurkeztuko da alkategai.* | *PSE-EEko zinegotzia azken legealdian.* | *Arabako Batzar Nagusietako kidea da.* | *EBko betiko kide. EAEko IUko presidentea.* | *Abokatua lanbidez. Lehen aldiz zerrendetan.* |
| J. A. Etxeberria<br>G. Muruamendiaraz<br>Juan Jose Arrieta<br>Juan Garitano<br>A. Amasorrain | Mila Elortza<br>Mikel Eguren<br>Maite Guridi<br>Aitor Goiti<br>Txema Arenaza | J. Antonio Romero<br>Sonia Conde<br>Javier Zendoia<br>Gloria San Martín<br>Eugenio Matesanz | Jesus Maria Fdez.<br>Obdulia Matías<br>Candelaria Castaño<br>Javier Valle<br>Angel Nieto | Isabel Salud<br>Salvador González<br>Carmen Zabaleta<br>Juan Manuel García<br>M. A. Hernández | J. Martin Elexpuru<br>Martin Etxebarria<br>Mikel Etxaniz<br>Libe Txintxurreta<br>Iñigo Iñurrategi |

## ARAMAIO

| EAJ-EA | HAMALAU | PSE-EE | PP | UA |
|---|---|---|---|---|
|  |  |  | | |
| **MERTXE MONDRAGON** | **JON URIBARREN** | **MARIO ONAINDIA** | **ENRIQUE AGIRREZABAL** | **DONATO DÍEZ** |
| **Aramaio** | **Aramaio** | **Lekeitio** | **Gasteiz** | |
| **54 urte** | **33 urte** | **54 urte** | **42 urte** | |
| *Zinegotzi izana da, eta irailetik hona, ordezko zinegotzi.* | *Langilea. Aurretik ere agertu izan da zerrendetan.* | *Euskal sozialismoan betidanik. PSE-ko buruzagi izana.* | *Arabako Foru Aldundiko Ongizateko diputatua.* | |
| Jesus Agirre<br>Roberto Aginagalde<br>Andres Osinaga<br>F. J. Goronaeta<br>Balentin Arriaran | Amaia Axpe<br>J. M. Gonzalez<br>Joseba Jauregi<br>Mikel Aranzabal<br>Gorka Astondoa | A. Irazustabarrena<br>J. E. Aranguren<br>Santiago Arostegi<br>Kristina Sorondo<br>Jose Ignacio Peláez | Arturo Ibarrondo<br>Silvia Pérez<br>Mercedes Comerón<br>Loli Irazu<br>M. Jose Regalado | Sofia González<br>Francisco Jesus Fernández<br>M. Purificación Arana<br>Jose Antonio Aguayo<br>Ruth Muñoz<br>Epifania Etxebarria<br>Maria de la Luz Silva |

## ARETXABALETA

| ARETXA | EAJ-EA | PSE-EE | PP | IU-EB | ARALAR |
|---|---|---|---|---|---|
|  |  |  | |  |  |
| **IÑAKI ITURRI** | **ARRITXU OLIDEN** | **MARI CARMEN ATXUTEGI** | **SILVIA CAMPORRO** | **JAIME MUXIKA** | **XABIER SARASUA** |
| **Aretxabaleta** | **Aretxabaleta** | **Zornotza** | **Gasteiz** | **Aretxabaleta** | **Aretxabaleta** |
| **45 urte** | **36 urte** | **48 urte** | **25 urte** | **45 urte** | **33 urte** |
| *Kooperatibako langile. Lehen aldiz zerrendetan.* | *Komertziala lanbidez. Lehen aldiz zerrendetan.* | *1987tik alderdiko kidea da. Lehen aldiz zerrendetan.* | *Ikaslea. Lehen aldiz hauteskunde zerrendetan.* | *Orain lau urte aurkeztu zen lehenengoz alkategai.* | *Irakaslea lanbidez. Lehen aldiz aurkezten da.* |
| Josu Atxaga<br>Dorleta Agirre<br>Asun Cardenal<br>Antonio Quintero<br>Josu Zaloña | Galo Sánchez<br>Maitane Urrutia<br>Jesus M. Herrasti<br>M. Uribetxeberria<br>I. S. de Azkunaga | Catalina Muñoz<br>Jose Ramon Hoyos<br>Modesto Martínez<br>M. Yolanda Motrel<br>Jesus Maria Alonso | Javier Fco. Moreno<br>Adoracion Yaniz<br>Juan Cruz Iturritxa<br>Francisco Mosquera<br>M. Cristina Olarte | Antonio Calvelo<br>Jesus del Fresno<br>Enrique Marcos<br>Julian Muñoz<br>M. C. Romano | Peli Beltran de Heredia<br>Jose Angel Antxia<br>Iñaki Sierra<br>Iker Iglesias<br>Jon Ander Loidi |

## ELGETA

| EAJ-EA | E. AUZOLANIAN | PP | PSE-EE | ARALAR |
|---|---|---|---|---|
|  |  | | |  |
| **PATXI BASAURI** | **EDURNE ALBERDI** | **MARI CARMEN OLÍAS** | **FERNANDO MUXIKA** | **OXEL EROSTARBE** |
| **Elgeta** | **Elgeta** | *Euskal Herritik kanpora bizi da gaur egun.* | | **Elgeta** |
| **58 urte** | **57 urte** | | | **24 urte** |
| *EAJko betiko kide, 27 urte daramatza alkate moduan.* | *Administraria lanbidez, lehen aldiz dago zerrendetan.* | | | *Geografoa. Lehen aldiz dago zerrendetan.* |
| Iñaki Ugarteburu<br>Joseba Mujika<br>Izaskun Larrea<br>Eduardo Zubiaurre<br>Mikel Larrea | Bittor Gallastegi<br>Sebas Arantzabal<br>Beatriz Basauri<br>Aitor Alberdi<br>Eider Sarasua | M. V. Spottorno<br>Begoña Oleaga<br>Fernando López<br>Serafin Cerrato<br>Pedro Cid<br>Antonio Adame<br>Jose Luis Díaz | Emerito López<br>Manuel Alonso<br>J. Ignacio Herrera<br>Natividad Marzal<br>Luis Morales<br>Roberto Etxaburu | Iban Retolaza<br>Rebeka Ubera<br>O. Totorikaguena<br>Gaizka Bolinaga<br>Jesus Belamendia |

## ESKORIATZA

| KONTZEJUPE | EA-EAJ | IU-EB | PSE-EE | PP | ELIZATEAK |
|---|---|---|---|---|---|
|  |  |  |  | |  |
| **DORLETA KORTAZAR** | **JUAN KARLOS BENGOA** | **XABIER ZUGASTI** | **JOSE IGNACIO PIERRUGUES** | **RAFAEL JAIME** | **JAVIER VILLAR** |
| **Eskoriatza** | **Eskoriatza** | **Arrasate** | **Eskoriatza** | **Gasteiz** | **Eskoriatza** |
| **29 urte** | **36 urte** | **44 urte** | **46 urte** | **54 urte** | **35 urte** |
| *Lau urtean zinegotzi; aurten, lehen aldiz alkategai.* | *Hiru legealditan zinegotzi; bigarren aldiz alkategai.* | *Eusko Jaurlaritzan egiten du lan. Zinegotzi ere bada.* | *Azken 12 urteotan, Aretxabaletako zinegotzi.* | *Enpresa gizona. Lehen aldiz zerrendetan.* | *Baserritarra lanbidez, lehen aldiz dago zerrendetan.* |
| A. Uribe-Etxeberria<br>Jesus Azkarate<br>Dorleta Lezeta<br>Lorea D. de Gereñu<br>Pedro Lasagabaster | Josu Ezkurdia<br>Maider Otamendi<br>Begoña Eraña<br>Carmelo Lezeta<br>Florentino Galindo | Juan Luis Merino<br>Joseba Zubizarreta<br>Blanca Merchán<br>M. Angel Miguel<br>Francisco Corbal | Julio Bellido<br>M. Josefa Asenjo<br>Elias de Castro<br>Maria Nieves Vejo<br>M. T. San Vicente | Jose Antonio Pérez<br>Luis Quintana<br>Maria Amorós<br>Milagros Agüero<br>Dolores Berenguel | Joseba Urkia<br>Martin Olabe<br>Juan Felix Iregi<br>Maite Beitia<br>Deiane Arrieta |

## ANTZUOLA

| GERTU GAE | EAJ-EA | PSE-EE | PP |
|---|---|---|---|
|  |  |  | |
| **MIREIA UNAMUNO** | **JOSE ANGEL ZABALO** | **M. ELVIRA KORTAJARENA** | **MARIA MARGARITA FERRÉ** |
| **Antzuolarra** | **Antzuolarra** | **Pasai Antxo** | *Euskal Herritik kanpora bizi da gaur egun.* |
| **37 urte** | **52 urte** | *Espainiako Gorteetan diputatua, eta Zumarragako udal langilea.* | |
| *1995-99 legealdean HBko zinegotzi. 99tik alkate.* | *1979tik 83ra zinegotzi. 99an alkategai EAJrekin.* | | |
| Patxi Olabarria<br>Juan Antonio Iturbe<br>Olatz Lezeta<br>Andoni Azkargorta<br>J. A. Ugarteburu | Dina Mujika<br>Iñigo R. de Okariz<br>Jose Ignacio Beltran<br>Basilio Ormazabal<br>Kruz Madariaga | Francisco Morcillo<br>Juan Benítez<br>Claudio Cabrera<br>Isabel Ortiz<br>Venancio Tena | Isabel Jimenez<br>J. Antonio Iglesias<br>M. Carmen Yuste<br>Isabel Sánchez<br>Concepcion Fernández<br>Luis Ibáñez |

## LEINTZ GATZAGA

**ZERRENDA INDEPENDENTEA**

Eugenio Otsoa
J. M. Makazaga
Nerea Maruri
J. R. Pérez
Jon Joseba Sasiain

**PP**

M. Manuela Feijoó
Miguel Henríquez
Sergio Migoya
Jose Maria Neira
M. Isabel Flórez

Gatzagan, gehienez, lau hautagai aukera daitezke, bi zerrendetatik.




ENEKO AZKARATE

**Demokrazia, justizia eta autodeterminazioa aldarrikatuko dituzte bihar, Maiatzaren Lehenean, Bilbon, euskal sindikatu nagusiek.**

# Elkarrekin ospatuko dute Maiatzaren Lehena ELA, LAB, EHNE eta Hiruk, Bilbon

*CCOO eta UGT, berriz, hiriburuetan elkartuko dira manifestazioa egiteko*

ENEKO AZKARATE

**Euskal sindikatu nagusiek batera ospatuko dituzte Maiatzaren Leheneko ekitaldiak, eta ESK-k ere bat egingo du sindikatu horiekin, Bilbon. CCOOk eta UGTk ere elkarrekin ospatuko dute eguna, hiriburuetan.**

Debagoienean, hortaz, ez da ekitaldirik izango eta Hego Euskal Herriko hiriburuetan egingo dituzte ekitaldiok sindikatuek: ELAk, LABek, EHNEk, Hiruk eta ESK-k Bilbon, eta CCOOk eta UGTk, lau hiriburuetan. ESK-k, gainera, Iruñean ere egingo du ekitaldia.

ELAk eta LABek, azken urteotan ez bezala, elkarrekin ospatuko dute Maiatzaren Lehena. Biek hala biek oso garrantzitsutzat jo dute azkenaldi honetan elkarrekin darabilten lan jarduna. *Langileok Demokrazia, justizia, autodeterminazioa* izango da lau sindikatuok –baita ESK-k ere– Bilbon erabiliko duten leloa. "Demokrazia herriarendako, justizia soziala langileendako, eta autodeterminazio eskubidea gure etorkizuna erabakitzeko aldarrikatu gura ditugu aurten", esan digu ELAko Unai Martínezek. 12:00etan hasiko da manifestazioa, Areatzan. Manifestazioaren ostean ELAk bazkaria egingo du Erakusketa Azokan. Sindikatuek autobusak antolatu dituzte Debagoienetik Bilbora joateko. Hala ere, Bizkaiko autobus langileen greba dela-eta, autobusez Eibarrera eta handik trenez abiatuko dira Bilboraino.

CCOOk eta UGTk, bestalde, Hego Euskal Herriko hiriburuetan egingo dituzte manifestazioak. Donostian, esaterako, Bulebarrean elkartuko dira 12:00etan. *Lan egin bizitzeko eta ez bizia galtzeko* izango da bi sindikatuon leloa. Azkenaldian eraikuntza alorrean batez ere gertatu diren lan istripuak eta langileen heriotzak salatu nahi dituzte CCOOk eta UGTk, eta, bide batez, lan osasuna aldarrikatu. "Enpresa buruek eta administrazioak utzikeria handia darabilte lan segurtasun neurriei dagokienez, eraikuntza alorrean batez ere, eta hori salatu gura dugu", esan digu UGTko Salvador Peñak.




## Lan istripuengatik protesta egin dute beste behin

Pazko martitzenean Eibar-Gasteiz autobidean, Bergaran, lanean ziharduela hil zen beharginaren heriotza dela eta, protesta egin dute, beste behin, sindikatuek, lan istripuak salatzeko. Dagoeneko bosgarren hildakoa da autobideko lanetan, eta horri gehitu behar zaizkio Bergarako ekialdeko saihesbidean orain dela bi urte hil ziren beste bi langileak. Azken hildakoa, Vicente P.F. galiziarra, 35 metrotik behera jausi zen.

# Iaz baino bisitari gehiago egon dira Aste Santuan ibarrean

*Bisitari gehienak gipuzkoarrak izan dira*

MONIKA BELASTEGI

**Oñati, Bergara eta Gatzagako turismo bulegoetako arduradunen esanetan, bisitari asko egon dira Aste Santuan. Bisitari kopuruak pixka bat gora egin duela azaldu dute, iazko datuekin alderatuta. Zubian ere zabalik egongo dira eta bisitaldi gidatuak eskainiko dituzte.**

Hiru bulegoetako arduradunen esanetan, batez ere Gipuzkoako bisitariak izan dira Oñati, Bergara eta Gatzagako turismo bulegoetara hurreratu direnak, eta horien artean asko Debagoienekoak. Horien ondoren, eta azken urteetako joera jarraituz, kataluniarrak ere ugari hurreratu dira.

Bisitari kopuruak begiratuz gero, Oñatiko bulegora 365 lagun hurreratu dira, Bergarakora 298 eta Gatzagara, berriz, 200 inguru, goizez bakarrik zabalik egon dela kontuan izanda.

Maiatzeko zubian zabalik egongo dira hiru bulegoak eta, ohi bezala, bisitaldi gidatuak eskainiko dituzte: Oñatin, 12:00etan eta 17:00etan; Gatzagan, 12:00etan eta 13:00etan; Bergaran ez dago ordu finkorik. Eskatzailearen arabera zehazten da bisitaren ordua.

## DEBAGOIENEAN LABUR

### Hizkuntza eskubideak berma daitezen eskatzeko, elkarretaratzeak epaitegietan

Euskaldunon hizkuntza eskubideak berma daitezen eskatzeko elkarretaratzeak egingo dituzte hilero, azken zapatuetan, 12:00etan, epaitegi aurrealdeetan. Horrela jakinarazi du Debagoieneko EHE taldeak, eta dei egin die herritarrei Bergaran epaitegiaren aurrean egingo dituzten elkarretaratzeetan parte hartzeko. Epaitegietan euskararen erabilera urria salatu gura dute ekintza horiekin. /E.A.

### Lapurretan egin dute Arrasateko Vodafonen

Arrasateko Vodafone poltsikoko telefonoen dendan lapurreta egin zuten joan den astean; eguaztenean, hain justu ere. Itxura guztien arabera, lapurrak goizaldean sartu ziren dendan, ateko kristala hautsi ondoren. Poltsikoko telefono dezente eta telefonoak diruz hornitzeko txartelak lapurtu zituzten: 30 euroko 46 txartel eta 15 euroko 41 txartel. Era berean, diru apur bat ere ostu zieten; aurreko egunean, arratsaldean, irabazitakoa, hain justu. /MAIDER OSA

ULMA

ULMA Hormigón Polímero, Koop. E. / Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA
DEIA

**Eguna:** 2003ko maiatzaren 9a
**Ordua:** 15:30ean lehen deialdian eta 16:00etan bigarrenean
**Tokia:** Oñatiko kultura etxea – Santa Marina plaza

GAIAK

1) AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO TXOSTENA
2) 2002KO EKITALDIKO MEMORIAREN IRAKURKETA ETA ONARPENA
3) ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
4) 2002KO EKITALDIAREN DIRU-KONTU ETA BALANTZEAREN AZTERKETA ETA, HALA BALEGOKIO, ONARTZEA.
5) EMAITZEN BANAKETA
6) HEZKUNTZA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO FONDOAREN APLIKAPENA (HKSF)
7) ERREGIMEN EKONOMIKOARI DAGOZKION ESTATUTUZKO XEDAPENAK
8) GOIESTRUKTURAKO ENTITATEEN GAIAK
9) KONTSEILU ERREKTOREAREN JAKINARAZPENAK
10) ESTATUTU SOZIALEN 28. ARTIKULUAREN ALDAKETA
11) ESKARI ETA GALDERAK

Jakinarazten da Kontabilitate Liburuak eta Estatutu Sozialen 28. artikuluaren aldaketari buruzko informazioa bazkide guztien esku daudela.

*Oñati, 2003ko apirila*

OÑATI

### Olabarrietako jaiekin hasiko da jaien denboraldia aste bukaeran

Herriko lehenengoak izanik, arrakastatsuak izaten dira Olabarrietako jaiak.

Bihar, maiatzak 1, hasiko dituzte jaiak. 12:00etan meza izango dute, eta gero luntxa egongo da. Arratsaldean, berriz, Mus Txapelketa jokatuko dute.

Egubakoitzean ez dute aparteko ospakizunik izango; zapatuan, berriz, umeendako jolasak egongo dira 15:30ean. Gauean auzo afaria egingo dute, 21:00etan, eta Laiotz taldearekin erromeria egongo da ondoren. Jaiak bukatzeko, txokolate-jana egongo da goizaldeko 03:30ean. /A.I.

ANTZUOLA

### Eskolan liburutegia egokitzen eta frontoi txiki bat egiten hasi dira

Herri Ikastetxeko azkeneko solairuan liburutegia jartzeko lanekin hasi dira dagoeneko. Pazko Astean hasi zituzten lanak; esan genizuen moduan, ikasleen gurasoek dihardute liburutegia egokitzen, auzolanean. Leihoak ez ezik, gainerako guztia ere berritu beharko dute.

Bestalde, eskolan frontoia jartzeko lanak ere hasi dituzte. Frontoi txiki bat egingo dute, squasheko frontoien tamainakoa, gutxi gorabehera. Horrela, jolastordurako beste aukera bat izango dute eskolako umeek. /A.I.

ELGETA

### Ibur errekako industrialdeko planaren proiektua onartu dute

Elgeta, Eibar eta Zaldibarko udalerrietan dagoen Ibur erreka industrialdeko zatikako planaren proiektua onartzea erabaki zuten apirilaren 16ko Gobernu batzordean. Proiektua aztertu nahi duenak udaletxera jo dezake.

Industrialde horretan pabilioiak eraikitzeko asmoa azaldu dute lurren jabeek eta promotoreek. 65.000 $m^2$ inguru izango dira, bi solairutan banatuta. Era berean, gune bat gorde nahi dute, bertan industria museo bat egiteko, hain justu ere. /I.A.



TXIRRITOLA EUSKARA ELKARTEA

ARAMAIO

### Aramaioko sagardogintza bultzatzeko Sagardogile Eguna ospatu zuten San Prudentzio bezperan

Jende ugari batu zen domekan Bizente Goikoetxea plazan. Aramaioko hogei bat sagardogilek egindako sagardoa dastatzea zen asmoa, herriko sagardogileek egindako lanarengatik esker ona adierazteko helburuarekin. Horretarako antolatu du Txirritola Euskara Elkarteak hirugarren urtez Sagardogile Eguna. Eta herritarrek erantzun ezin hobea eman zuten. Interes handiarekin ikusi zuten plazan ipinitako argazki erakusketa eta adiadi egon ziren sagar muztioa zelan egiten den erakutsi zutenean. Horrez gainera, sagardoari laguntzeko, herriko talogileek egindako taloak eta pintxoak jateko aukera egon zen. Hori guztiori, herriko trikitilariek eta bertsolariek euren doinuekin eta kantuekin girotuta. /MIKEL ARANTZABAL

ARRASATE

## Arrasateko eta inguruko aberastasun naturala aztertu dute

*Arrasateko txoko naturalak* izeneko liburua argitaratuko du laster Arrasateko Udalak. Rosa Agirrebeña eta Urtzi Mendizabal biologoek idatzi dute liburua, Arrasateko eta inguruetako txoko naturalak aztertu eta, bide batez, txoko horiek ezagutarazteko eta bere horretan gordetzeko baliotsua izateko asmoarekin.

Guztira liburuaren mila ale argitaratuko ditu Arrasateko Udalak.

**EKOSISTEMA UGARI**

Besteak beste, Arrasateko ekosistemen berri ematen dute liburuan biologo biek; adibidez, diote hamabi ekosistema daudela gure inguruan; Udalatx hemen egoteak horrenbeste ekosistema izatearekin duen garrantzia aztertzen dute, eta eurek aztertutako txoko naturaletako landareen eta zuhaitzen berri ematen dute liburuan.

Aztertutako ekosistemen artean mendi-larrea, harkaitzetako landaretza, harizti baso mistoa, kareharri-larrea eta gleretako landaretza daude, besteak beste.

Rosa Agirrebeñak eta Urtzi Mendizabalek hiru urte eman dituzte Arrasateko inguruak aztertzen eta miatzen. Hain justu ere, horixe izan da liburua idazteko eurek erabilitako oinarrizko lan prozedura: txoko naturaletara bertara joan, eta han dagoena ikusi, aztertu eta katalogatu.

Horrenbestez, naturazaleok eta mendizaleok hortxe daukazue aukeran liburu aberasgarri eta erabilgarri hori. /U.M.

**Zertzelada**

**Arrasaten eta inguruan dauden hamabi ekosistema aztertu dituzte biologo biek *Arrasateko txoko naturalak* izeneko liburuan**

BERGARA

## Irukurutzeta Eguna izango da domekan ohiko meza eta erromeriarekin

Domekan, maiatzaren 4an, Irukurutzeta Eguna izango da. Ekitaldiak 11:00etan hasiko dira. Ordu horretan meza egongo da pago bedeinkatuan, eta mezaren ondoren, 12:00etan, salda eta txorizoa banatuko dute hurreratzen diren guztiendako. Gero, 13:30ean Irukurutzeta mendira igoera hasiko da eta 14:00etan bazkaria egongo da, nork berea eramanda. Bazkalostean, 15:30ean erromeria egongo da, Ainhoa eta Nerea Zarauzko trikitilariekin eta 18:00etan jaitsiera izango da.

Eguraldi txarra egiten badu, meza Atseden Txaboletan izango da eta gainerako ekitaldiak bertan behera geratuko dira. /M.B.



ARTXIBOA

Azkeneko bi urteotan ez da erromeriarik egin, eguraldi txarragatik.

ARETXABALETA

### Otala-Zelaiko herri krosak 25. urteurrena beteko du domekan

Domekan egingo dute Otala-Zelaiko herri krosa Aretxabaletako Urkulu urtegian. Aurten, gainera, 25 urte beteko ditu, eta hori ospatzeko sari hobeak banatuko dituzte irabazleen artean. Parte-hartzaile guztiendako egongo dira, gainera, sariak, eta Kamel Zianik ezarritako errekorra hobetzea lortzen duenak 200 euroko sari berezia jasoko du.

Goizeko hamaiketan hasiko da krosa Urkulun, eta parte hartu gura duenak ordu eta erdi lehenago eman beharko du izena Urkulun bertan. /M.A.

ESKORIATZA

### Aitzorrotz Eguna ospatuko dute domekan eskoriatzarrek

Domeka honetan ospatuko dute Aitzorrotz Eguna Eskoriatzan. 09:30ean irtengo dira Aitzorrotzerantz herritarrak, eta 11:30ean izango dute meza tontorrean. Gero, trikitilariak, bertsolariak, dantzariak… egongo dira. Bazkaltzera geratu gura duenak bildots errea izango du. 18:30ean, bestalde, herritarrek egindako patata-tortillak batuko dituzte plazan.

Egun horretan batutako dirua Eskoriatzako gutxitu psikikoen taldeari eta Atxorrotx GKEk dituen proiektuei laguntzeko izango da. /M.A.

LEINTZ GATZAGA

### Hauteskundeetako mahaikideak izendatzeko zozketa egin dute gaur

Eguerdian egin dute, udaletxean, maiatzaren 25ean egingo diren udal hauteskundeetan mahaian egongo diren kideak aukeratzeko zozketa. 211 lagun sartu dituzte zozketan, eta horietatik bederatzi izango dira aukeratuak: mahaian egongo diren presidentea eta bi kideak eta haien ordezkoak izango diren beste sei lagun. Zapatua baino lehenago jakinaraziko diete hautatuei, eta alegazioak egiteko maiatzaren 10a baino lehenago Bergarako Eskualdeko Hauteskunde batzordera jo beharko da. /A.G.

# Zabalik



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

## Harriak

**Horrelakoxeak dira gure eskualdeko herriak, harriei eta eraikinei soilik erreparatzen baitizkiete bertako turismo bulego urriek eskaintzen dituzten argitarapen eta bisita gidatuek. Oñatin eta Bergaran aurkituko ditu azken hauek bisitariak; Mankomunitateko Turismo Zentrora deituz gero, ez du inork erantzungo. Aste Santuan neure herrian, Bergaran, turista moduan goiza pasatzea erabaki nuen; turismo bulegora deitu eta neska jator batek argibide guztiak eman zizkidan. Bisita gidatua egiteko talderik osatuta ba ote zegoen galdetu nionean, lasai egoteko erantzun zidan, osatzen ez bazen ere bulegora heldutakoan neuri bakarrik herria erakutsiko zidala adieraziz. Esan eta izan. Alde horretatik luxuzko zerbitzua iruditu zitzaidan. Bisitari berari dagokionez, gehien arduratu ninduena zera izan zen: herriko pertsonaiei buruz apenas hitzik ere ez entzutea. Etxe edo jauregiak izendatzerakoan aipamenen bat bai, baina nortzuk izan ziren edo zer egin zuten azaldu gabe. Etxea edo eliza zein garaikoa eta estilokoa zen esatera mugatu zen nire *ciceronea*, arkitekturaren bitxikeriaren batzuk gehituz. Oñatin ere harriei begira. Irala, Garibai edo Agirreren garaitik gaur arte eman ditu eman pertsonaia entzutetsurik Debagoienak, bertakoontzat sarritan ezezagun eta kanpotarrentzat erakargarri, baina hortxe segituko dute lozorroan pleno-aretoetako sabaietan, kale-izen edota artxibategietako apalategietan. Esnatuko al ditu norbaitek eta lau haizeetara zabaldu! Beharbada orduantxe izango ditugu benetako turismo herriak, eta ez bakarrik harriak.**

# Gutunak

## Aurrera goaz

Zure sinadura beharrezkoa zen eta horrela ulertu dugu elgetar askok eta askok. Eskerrak eman nahi dizkizuegu, zuen sinadurarekin Elgeta Auzolanian eta AUB aurrera bultzatzen lagundu duzuen guztioi. 100 sinaduratik gora izan dira EALk eta AUBk hauteskundeetan parte hartzeko babesa eman dugunok, poztekoa horrelako erantzun zoragarria izatea.

Eta, aurrera goaz traba guztien gainetik, arnasa hartu eta aurrera, eta traba burokratiko guztiak gainditutakoan, orain hori baita lehentasunezko lana, aurrera egingo dugu Elgetarako proposamenak egiten, Elgeta hobetzen, Elgeta osatzen, elgetarrok hobetzen eta elgetarrok osatzen, eta baita ere Euskal Herria hobe bat eta osatuago bat eraikitzen. Aurrera goaz. Eskerrik asko!

ELGETA AUZOLANIAN
Elgeta

## Kontsumitzaileon eskubideak

Gutun honen bidez, kontsumitzaileek dugun laguntza eskasa azaldu nahi dut. Orain dela gutxi, etxebizitza berria erosi nuen, eta segituan konturatu nintzen barruko ateak ez zeudela behar bezala. Horregatik, eta jakinda beste bizilagun bakarren batzuk egoera berean zeudela, kontsumitzaileen bulegora abiatu eta informazio eta egin beharrekoak egin nituen. Hala ere, itxura denez, kontsumitzaileak berak eta ez saltzaileak demostratu behar du benetan materiala ez dela egokia, eta gastu guztiak kontsumitzailearen gain doaz. Benetan ulertezina.

Gauzak horrela, dirua aurreratzen ez badut, arazoa konponduko ez zaidala uste dut, eta ezta aurreratu ere, batek daki. Horregatik, kontsumitzaile bezala babes gutxirekin aurkitu naiz.

Baina gutun honen helburua bestelakoa da. Behin arazoa badago, kontsumitzaileek aukera gutxi ditugula argi utzi nahi dut. Beraz, arazorik ez sortzeko garantiazko enpresak aukeratu behar ditugu. Garantia Kontsumitzaileen Elkartean izena eman duten enpresek ematen digute. Arazoa balego, hauek behartuta egongo lirateke administrazioaren aurrean arazoa konpontzen; besteak, aldiz, ez. Gure inguruan, Aretxabaletan badago enpresa bat baldintza hauek betetzen ez dituena, ez-egokia nire ustetan: Gorbea aroztegia. Aroztegi honetan arazoen aurrean ez dute ezertxo ere egiten. Hori bai, aurretik dirua hartzeko trebeak dira.

Beraz, kontuz Gorbea aroztegiarekin, nik izandako arazoak ez errepikatzea espero dut. Beharbada, idatzi honek lana kenduko dio aroztegiari, eta horrela beharbada, erosle eta kontsumitzaileen ongi izanak duen garrantziaz ohartuko dira nonbait.

ARANTZAZU OLABE
Aretxabaleta

## EHNA: egin eta erabili

Garai latzak bizi ditugu, inondik inora, gure herri zahar honetan. Urte luzetan zehar gu menderatzeko indarka dabilenak azken estokada eman nahi digu.

Ez dugu inor aspertu nahi Euskal Herriak eta euskal herritarrok jasaten ditugun erasoak zerrendatuz. Jakina baita gure herriaren historia zapalkuntzaz zapalkuntza gogoratzen dela.

Euskaldunon izateari tinko helduz, aurrera jotzeko garaia heldu da. Euskal herritarrok Euskal Herria eraikitzeko tresnak baditugu, eta beraz, gogor ekin behar diogu eraikuntzen lanari. Gaur egun Euskal Herria bizirik iraunarazio badugu, aukera bakarra dugu esku artean: euskal herritar gisa bizi behar dugu, horrela soilik lortuko baitugu herri honen geroa bermatzea. Tresnak baditugu. Hor dugu 125.000 euskaldunek Udabiltzari eginiko eskaeraren erantzuna. EHNA kalean da: Euskal Herriko Naziotasun Aitormena egiteko garaia heldu da.

Arrasaten ere laster izango dugu EHNA tramitatzeko aukera, baina horretarako herritarron bultzada beharrezko da. Nola? Udaletxeari EHNA tramitatzeko bitartekoak jar ditzan eskatuz. Horretarako tabernetan dauden orrietan sinatzera animatzen zaituztegu. Honekin batera, eskerrak eman nahi diegu ekimen honi atxikimendua adierazi diozuen eragile sozio-kultural zein sindikalei. Besteak beste, ELA, LAB, ESK, CCOO, Arrasateko EA, Batasuna, Lore Gazteak eta Txikitxu-Arrostaitz dantza taldeak, AGAKO, Al Andalus, Apokaliftin Kultur Elkartea, Putz, Santamas Komisiñue, Arrasateko bilgune feminista, Erdu euskaltegia, Gazte Ekimena, Debagoieneko elkarlana, Mondra F.T., Elkarri…

ARRASATEKO BAI EUSKAL HERRIARI
Arrasate

## Ongi etorri, Mikel!

Azken 30 urteak herritik kanpo egin ondoren, Mikel Piedehierro arrasatear iheslari ohia itzuli da etxera. Orain dela hilabete batzuk beste hainbat iheslarik ere erabaki bera hartu zuten, Xanti Iparragirre eskoriatzarra kasu. Lagun hauek pauso bat eman dute Euskal Herriaren eskubideen aldeko borrokan eta eraikuntza prozesuan, beste behin ere herriarendako borroka, eredu bihurtuz. Dena den, ekimen hau ez da beraiena soilik.

Herritarrok, ozen aldarrikatu behar dugu euskaldunok Euskal Herrian bizitzeko daukagun eskubidea, eta euskal herritar giza bizitzekoa. Beraz, bizi gaitezen euskal herritar gisa. Eta, animatu gaitezen, mezu hau ardatz hartuta, Mikel Piedehierrori maiatzaren 3an, zapatuan, arratsaldeko 7etan Zigorrolan egingo zaion omenaldian parte hartzera.

ETXERAT
Arrasate

# Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE




Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**ZUZENDARIA**
Eneko Azkarate

**ERREDAKZIO KONTSEILUA**
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

**ADMINISTRAZIOA**
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**SAILETAKO ARDURADUNAK**
Goio Arana (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

**PUBLIZITATEA**
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martinez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín, Imanol Elortza

**TESTUEN ZUZENKETA**
Sergio Azkarate

**PRODUKZIOA**
Iban Arantzabal

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

**LEHENDAKARIA**
Estepan Plazaola

**ZUZENDARI NAGUSIA**
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



ARETXAGAZETA

# Felix Ormaetxea

ARIZMENDIKO ZUZENDARI OHIA

## “Kalitateko hezkuntza barik beste proiektu asko ez direla posible esango nieke gurasoei eta erakundeei”

AZNARREN POLITIKA

**“Adierazle kuantitatiboak ditu gogoan, ez kualitatiboak. Gaztelania galduko den beldur da eta Espainiako historia gu txikiak ginenean moduan kontatu gura du, unitatea bermatzeko”**

HEZKUNTZA SISTEMA

**“Gure herriak bere buruaren jabe izateko eskubidea izan behar du, eta gure hezkuntza sistema sortzeko eskubidea aldarrikatzen dut”**

Felix Ormaetxea arrasatearrak Araotzen izan zuen hezkuntzarekin lehenengo harremana, herriko 60 umeren irakasle izan zen-eta bi urtez. Araoztik Venezuelara joan zen, eta han hamar urte egin eta gero, Arrasateko Eskola Politeknikoan zegoen Hezibiden hasi zen lanean. 40 urte geroago, Arizmendi proiektua errealitate bihurtu denean, merezitako erretiroa hartu du. Eta orain erretiroaz disfrutatzen dabilela esan digu, besteak beste, oraingo astean egin diogun elkarrizketan.

AINTZANE GARDOKI / MIRARI ALTUBE

**Ia bizitza osoa eskaini diozu hezkuntzari.**

1960an Araotzera abade joan nintzen arren, bertako 60 ume nire kargu izan nituen eskolan bi urtez. Han izan nuen hezkuntzarekin lehenengo harremana. Gero, hamar urte Venezuelan eman nituen. Euskal Herrira bueltan abade izateari utzi eta ikasketak egin nituen. 1974an, Eskola Politeknikoan zegoen Hezkuntza eta Kultura Liga –gero Hezibide izan zena– elkartean hasi nintzen lanean.

**Zeintzuk izan ziren zure betebeharrak garai hartan?**

Ez ziren gutxi izan. Biteri Ikastetxearen ardura izan nuen hasieran. Irakasle Eskola sortzeko ahaleginetan murgildu ginen laster. Maisu-maistra euskaldunak hezteko premia handia zegoen, eta 1976an, Salamancako Unibertsitatearen barne izan bazen ere, Irakasle Eskola abian jarri genuen. Bi urte geroago, ostera, beharrezkoak genituen baimen administratiboak lortu genituen. Almenen gerente lanak egin nituen tartean, eta Javier Retegik zuzendaritza utzi zuenean neuk hartu nuen haren errelebua. 21 urtez ibili naiz horretan. Tarte horretan Euskal Herriko heziketa teknikoko ikastetxe historiko eta onenak HETEL elkartean batu genituen. Pauso ikaragarri handia izan zen; herri ekimenetik sortutako ikastetxeak elkarrekin lanean jarri genituen, kalitatezko ekimen berriak bultzatzeko.

**Arizmendi Euskal Herriko ikastola handiena sortzerakoan zeresan handia izan du Felix Ormaetxeak.**

Guztion ahaleginarekin egindako proiektua da Arizmendi. Ekimen zaila bezain ona eta, era berean, onuragarria da Arizmendi. Hezibiden elkarrekin egon arren, kultura ezberdineko lau ikastola (Almen, San Viator, San Frantzisko eta Umezaintza) bateratzea ez da erraza izan, baina guztion helburua bakarra izan da: hezkuntza zerbitzu hobea, kalitatezkoa, herriari eskaintzea. Azken baten, gizarteak dituen beharrei hobeto erantzuteko jaio da Arizmendi.

**Zer eskaintzen du, hortaz, Arizmendik?**

Kudeatzeko sistema hobea. Eskaintza eta zerbitzu zabalagoa eta, duda barik, hobea. Adibide batzuk aipatzeagatik: Haur Hezkuntza, hau da, 0 eta 6 urte bitarteko eskaintza herri guztietara bakarrik ez, auzoetara ere zabaldu gura izan dugu. Batu ez bagina, ikastola bakoitzak bere aldetik ezingo zukeen inondik inora horrelako zerbitzurik eskaini. Gauza bera gertatzen da Batxilergoarekin eta Lanbide Heziketarekin. Orain Arizmendik eskaintza sendoagoa ematen du. Bestetik, ezarri dugun barne kudeaketa sistema ere oso modernoa eta aurrerakoia da.

**Zein garrantzia du hezkuntzak?**

Izugarria. Jose Maria Arizmendiarrietak oso garbi zeukan herri baten askatasuna hezkuntzan oinarritzen dela. Jakinduria, bizitzaren aurrerako jarrera, tolerantzia… Hori guztia ematen du hezkuntzak, eta balio horiek landu egin behar dira. Inon ez dagoen hezkuntza azpiegitura daukagu gure ibarrean. Hala ere, oraindik asko dago egiteko, eta azkenaldian hezkuntzaren garrantziaren kontzientzia jaitsi egin da. Hori dela eta, guraso gazteei egingo nieke dei: hezkuntza ez da ikastolan bakarrik jasotzen, gurasoek eta ikastolek elkarrekin bultzatu behar dute. Erakundeei ere egingo nieke dei: behar asko daude, egia da, baina kalitateko hezkuntza barik beste proiektu asko ez dira posible izango.

**Egoera txarrak ere bizi izan dituzu…**

Ez dakit bertutea den, baina urteak pasatu ahala une txarrak ahaztu eta onak bakarrik geratzen zaizkit gogoan. Edozelan ere, egia da une latzak tokatu zaizkigula. 1993an esate baterako, Hezkuntza Ituna oinarritzat hartuta Eskola Publikoaren Legea atera zuten. HETELek ez zuen izenpetu, baina lege hark zatiketa sustatu zuen publikoaren eta pribatuaren artean. Ikastolen mugimenduari min handia egin zion zatiketa hark, baina ikastolak herri ekimenetik sortutakoak dira eta ez ziren desagertu. Hezkuntzarekiko grina handia izan du beti Euskal Herriak, ez dauka Espainiakoarekin zerikusirik, eta beste eredu baten inposaketa etorri zen. Gure herriak bere buruaren jabe izateko eskubidea izan behar du, eta gure hezkuntza sistema sortzeko eskubidea aldarrikatzen dut. Berriro indartzen dabil, gainera, ikastolen mugimendua.

**Aznarren gobernuak zein politika jarraitzen du?**

Liberalismo kutsua duen politika, eta horrek klasismoa dakar. Edukia ziurtatu gura du, eta, hala, gainditzeko gauza dena goian egongo da eta gauza ez dena behean. Adierazle kuantitatiboak ditu gogoan, eta ez kualitatiboak. Gaztelania galduko ote den beldur da, eta Espainiako historia gu txikiak ginenean kontatutako moduan kontatu gura du, unitatea bermatzeko. Guk legea betetzen jakin behar dugu, baina geure erara. Hori da inteligenteen jarrera.

***Euskaldunon Egunkaria* itxi zuten eta Xabier Oleaga Ikastolen Komunikazio arduraduna kartzelan dago oraindik. Ikastolek beldurrik izan behar dute?**

Edozein euskaldunek duen beldurra. Xabier Oleagaren bila joan zirenean ez zuten bakarrik hari zegokion informazioa eroan, ikastolen gaineko informazio asko eroan zuten-eta. Ikastola, ostera, askea da, baina Euskal Herrian bizi garenez horri dagokion moduan hezten ahalegintzen gara, herri honi leial izanez. Euskaldun abertzalea izatea geroago eta bekatu handiagoa ei da.

**Datorren urtean Kilometroak jaia Arizmendik antolatuko ei du ibarrean.**

Otsailean aurkeztu genuen proiektua, baina maiatzean hartuko da erabakia, eta oraindik ez dakigu. Bost urte daramatzagu eskean, eta baietza ematea espero dugu. Egin dugun ahalegin erraldoia eskertzeko balioko luke. Ibarrean egin dugun proiektua erakusteko aukera bikaina ere izango da, batez ere eredugarria dela uste dugulako, bai beste toki eta esparrutan egiteko modukoa. Era berean, gure kooperatiba eredua adierazteko aukera izango dugu; izan ere, kooperatiba integrala, hau da, gurasoek, kolaboratzaileek eta langileek osatutako kooperatiba gara. Behar ekonomikoei aurre egiteko laguntza ere jasoko dugu: batetik, berregituraketak baliabide asko eskatzen ditu, baina bestetik, aurrera etengabe egiteko ikerketa bultzatu behar dugu.

**Orain erretiratuta zaude. Zertan ematen duzu eguna?**

Oso garbi daukat bakoitzari bere aroa dagokiola, eta ni laguntzeko gertu nago, baina ez daukat inongo gogorik ezer protagonizatzeko. Erretiroak dauzkan alderdi positiboak bizi izaten ari naiz, asko ditueta… Arizmendi proiektua bukatuta joan naiz, errealitate indartsua denean, eta horrek poztasuna ematen du. Ez Arizmendin bakarrik; izan ere, mahai askotan jardun dut lanean, eta egin dudan lanarekin gustura nago.

## *Podiuma*

# Markel Larrañaga |KARATEKA|

**Karatean dihardu Markel Larrañaga 16 urteko bergararrak. Gipuzkoako eta Euskal Herriko txapeldun izan da aurten, *kumite* modalitatean. Espainiako Txapelketan parte hartzekoa zen, baina adin kontuak direla-eta, azken unean ezin izan da joan.**

**Euskal Herriko txapeldun izan zara Bergaran jokatutako txapelketan. Ilusio berezia egin dizu herrian irabazteak?**

Ilusioa, herrian bertan irabazteak baino gehiago, irabazteak berak egin dit. Urte osoan horretarako gertatu ondoren, lehenengo izateak asko poztu ninduen. Txapelketan hiru borrokaldi izan ziren eta hirurak irabazi nituen.

**Zertan datza *kumite* modalitatea?**

Bi modalitate daude: *kumite* eta *kata*. *Kata*, erakustaldi moduan, norberak bakarrik egiten du. *Kumite* modalitatean, berriz, beste batekin borrokan bi minutuz puntuak lortzea da kontua.

**Gipuzkoako eta Euskal Herriko txapeldun zara. Beste titulurik lortu duzu?**

Orain dela bi urte, Espainiako Txapelketan bosgarren izan nintzen, eta urte hartan bertan, Gipuzkoako lehena izan nintzen. Iaz bigarren izan nintzen Gipuzkoako eta Euskal Herriko txapelketetan.



I.A.

Gipuzkoako eta Euskal Herriko karate txapeldun izan da aurten.

> **“Adinarekin arazo batzuk izan direla eta, txartela lortua nuen arren, ezin izan dut Espainiako Txapelketan parterik hartu”**

> **“Niretako karatea denbora-pasarako kirola da. Beste batek dantza egiten duen moduan nik karatean jarduten dut”**

**Ezin izan duzu parterik hartu Espainiako Txapelketan. Zergatik?**

Adinarekin arazoak izan dira. Berez bertara joateko txartela lortua nuen, baina otsailean 16 urte bete nituenez, baimena ukatu didate. Hilabete geroago jaio izan banintz parte har nezakeen. Gainera, azken unera arte ez zidaten abisatu. Urte osoan entrenatzen ibili ostean, min handia egin dit Espainiako Txapelketara ez joateak.

**Karatea defentsa kirola dela esan izan da. Zuk erabili duzu inoiz zure burua babesteko?**

Ez. Niretako, karatea denbora-pasarako kirola da, gustuko dudalako egiten dut. Beste batek dantza egiten duen moduan, nik karatea egiten dut.

**Zein baldintza behar ditu karateka on batek?**

Asko entrenatzea da kontua. Teknika ona izanez gero, orduan eta hobeto, baina hori landuta lortzen da, ez da norbera teknika horrekin jaiotzen, batzuk lan gutxi eginda gehiago lortzen badute ere.

**Aurrerantzean zein asmo dituzu?**

Orain dela hiru urte gerriko beltza lortu nuen, eta nire asmoa aurten lehenengo *dan*-a eskuratzea da. Horiek gerriko beltzaren ondorengo mailak dira. Bestalde, datorren urtean berriro ahaleginduko naiz Espainiako Txapelketara iristen eta ahal dudan postu onena lortzen, kontuan hartuta maila altuagoan egongo naizela.

**Zein dira karatearen alde ona eta txarra?**

Txarrena, entrenamenduak, denbora luzea kentzen dutelako. Baina lan horrek ematen dituen fruituak ikustea benetan asebetetzen nau.

IRATI AGIRREAZALDEGI

## GOIENKARIA SARIA

**Aste bukaerako emaitzak:** Mundarro 1 - Bergara 1 / Touring 1 - Aretxabaleta 3 / Oiartzun 0 - Aloña Mendi 1

### ASTEKO JOKALARI ONENAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1. | Aitor Alartzia | (Aretxabaleta) | 3 puntu |
| 2. | Joseba Albizu | (Aloña Mendi) | 2 puntu |
| 3. | Josu Zubikarai | (Bergara) | 1 puntu |

1

**Aitor Alartzia**
Aretxabaleta

2

**Joseba Albizu**
Aloña Mendi

3

**Josu Zubikarai**
Bergara

**Aitor Alartzia**
Sekulako norgehiagoka Aitorrek eta talde osoak.

**Joseba Albizu**
Oiartzunen zalaparta ugari, eta garaipena Oñatira.

**Josu Zubikarai**
Aurrelariak Bergararen gol bakarra sartu zuen.

### SAILKAPEN OROKORRA

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1. | Jon Muruamendiaraz | (Mondra) | 17 puntu |
| 2. | Gorka San Vicente | (Bergara) | 16 puntu |
| 3. | Xabi Camino | (Aloña Mendi) | 10 puntu |
| 4. | Josu Zubikarai | (Bergara) | 9 puntu |
| 5. | Jon Altzola | (Bergara) | 9 puntu |

1

**Jon Muruamendiaraz**
Mondra

2

**Gorka San Vicente**
Bergara

3

**Xabi Camino**
Aloña Mendi

4

**Josu Zubikarai**
Bergara

5

**Jon Altzola**
Bergara

**Goienkaria**

## *Kirolaburrak*




### FUTBOLA/ARETXABALETA

Almen-Uda Aretxabaletako emakumezkoen futbol taldeak Frantziako Cognac herrian nazioarteko futbol txapelketa baten hartu du parte. Alemania, Frantzia, Luxenburgo, Belgika eta Euskal Herriko taldeek jardun dute lehian. Aretxabaletako neskek lehen partidua galdu egin zuten, bukaeran txapeldun izan zen Belgradeko taldearen aurka. Hurrengo bi partiduak berdindu ostean, ez ziren txapelketako bigarren zatira heldu. Azken partidua FC Haute-Gruyere talde suitzarraren aurka irabazi, eta txapelketa zazpigarren postuan amaitu zuten.

### PATINAJEA/ARRASATE

Patinaje ikastaroa antolatu du Mondragon Unibertsitateko Kirol eta Osasun Sailak. Patinen gainean orekari eusteaz gainera, birak ematen, balaztatzen eta atzerantz ibiltzen irakatsiko die Jorge Vázquez irakasleak izena ematen dutenei. Ikastaroa maiatzaren 12tik ekainaren 11ra bitartean izango da, astelehenetan eta eguaztenetan, 18:45etik 20:15era, Iturripeko atletismoko pistan. Deba ibarreko biztanleek eta Mondragon Unibertsitateko ikasleek 12 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, 15.

### ‘SPINNING’-A/OÑATI

Debarroko euskara eta kirol zerbitzuek antolatuta oinarrizko monitore agiria lortzeko *spinning* ikastaroa izango da maiatzaren 10ean Oñatiko Zubikoa kiroldegian. Goizeko saioa 09:30etik 13:30era izango da eta arratsaldekoa, 16:00etatik 20:00etara. Debarroko kirol zerbitzuetako bazkidek 45 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, 54. Izena emateko edo informazio zabalagoa eskuratzeko ibarreko kiroldegietara edo udaletako kirol zerbitzuetara jo dezakete interesatuek. Ikastaroa aurrera ateratzeko gutxienez zortzi partaide behar dira.

### TXIRRINDULARITZA/BERGARA

Bergarako eta Soraluzeko udalek akordioa sinatu dute bi herrion arteko antzinako trenbidea bidegorri bihurtzeko. Guztira 6,6 kilometro izango ditu bideak: horietatik 1,55 Soraluzen eta gainerako 5,05 kilometroak Bergarako lurretan daudenak. Soraluze eta Osintxu arteko zatian aurki hasiko dituzte lanak. Bigarren zatia egiteko, berriz, Mekolaldeko depuradora eraiki arte zain egon beharko dute. Horrela, dagoeneko txirrindulari, atleta eta oinezko ugarik erabiltzen duten bidea hobetuko dute.

### PILOTA/ANTZUOLA

Aritz Berraondo pilotari antzuolarrak 22-5 irabazi zion, Eibarko Astelena pilotalekuan, Pablo Berasaluze berriztarrari. Hala, garaipen horrekin bigarren mailako buruz buruko txapelketako finalerdietarako sailkatu da eta hurrengo partidua Galartza VI.aren kontra jokatuko du. Antzuolako aurrelariak ordu erdi eskas behar izan zuen partidua irabazteko. Berrehun pilotakada inguru eman zituzten. Partiduan erakutsitako nagusitasuna txokoan egindako dejada batekin amaitu zuen Aritz Berraondok.

# Otala-Zelaiko krosak, 25 urte

## Domekan hainbat mailatako probak jokatuko dira Urkulun, 10:00etan hasita

**Domekan Otala-Zelaiko krosa jokatuko da Urkulun. Almen Kirol Elkarteak eta Aretxabaletako Udalak antolatzen duten probak zilarrezko ezteiak beteko ditu aurten.**

Domekan, lehenbizi, benjamin mailakoak (10:00etan), alebinak (10:10ean), infantilak (10:20an) eta kadete mailako korrikalariak (10:30ean) izango dira lehian. 600 m., 800 m., 1.000 m. eta 2.000 metroko ibilbidea egin beharko dute, hurrenez hurren. Izenematea egunean bertan egin daiteke.

Gero, 11:00etan junior, senior eta beterano maileetako probari emango zaio hasiera, Zelaikua baserriaren aurrean. Senior mailako gizonezkoek bi itzuli eman beharko dizkiote Urkuluko urtegiari (13.400 m.) eta gainerakoek, berriz, itzuli bakarra (6.700 m.).

Izenematea (bost euro) domekan egin beharko da, 09:30etik 10:30era. Gizonezko zein emakumezkoen mailako onenek sariak izango dituzte eta, horrez gain, Kamel Zianik ezarritako errekorra (40 minutu eta 29 segundo) hobetzen duenarendako 200 euroko sari berezia egongo da.



ARETXAGAZETA

Joan den urtean 190 lasterkari inguru batu ziren Urkulun.

**ARRASATE-OÑATI, HILAREN 10EAN**

Maiatzaren 10ean Arrasate-Oñati lasterketa jokatuko da. Irteera Arrasateko Portaloitik egingo da, 18:30ean. Laixan euskara elkarteak *Egunkaria*-ren laguntza izan du azken bi urteotan probaren antolaketan, eta *Egunkaria*-ren aldeko mezua zabalduko dute aurten antolatzaileek.

EDU MENDIBIL

## Kirolabur

**MENDIKO BIZIKLETA/**SAN ISIDRO SARIA

Domekan, maiatzaren 4an, San Isidroko I. Mendiko Bizikleta saria jokatuko da Arrasateko Musakola auzoan. 09:00etan kadete, gazte eta nesken probak jokatuko dira eta 11:00etan, 23 urtetik azpiko, elite, master 30 eta beteranoenak.

**ZIKLISMOA/**ASIER ATXA

Asier Atxa (Orbea-Olarra) bigarren izan zen domekan Lazkaon jokatutako amateur mailako proban. Luis Moyano argentinarrak (Telco) 24 segundoren aldea atera zion txirrindulari aretxabaletarrari.

**TXAPELKETAK/**BERGARA

Debagoieneko Kirol Zirkuituaren barruan pala eta frontenis txapelketak jokatuko dira Bergaran maiatzaren 10etik aurrera. Izenematea, Bergarako Kirol Zerbitzuan (943 77 91 67).

**ZIKLISMOA/**BERGARA

Eguenean, maiatzaren 1ean, gazte mailako Labegaraietako Sariaren 61. aldia jokatuko da Bergaran, 16:30ean. Txirrindulariek 63 kilometroko ibilbidea izango dute eta lasterketa 18:05ean amaituko da.

vit·sec
KALITATEZKO TINDATEGIA
5. urteurrena




ALFONBRAK
EDREDOIAK
GORTINAK
LARRUA ETA MOTA
GUZTIETAKO ARROPAK



Garbitasunerako teknika aurrerakoienak erabiltzen ditugu

vit·sec
Zure konfiantzazko tindategia

OTALORA LIZENTZIADUNA 22
(UARKAPEKO BIRIBILUNEAREN ONDOAN)
ARRASATE. 943 77 17 82


Ormazabal
BARNE ARKITEKTURA
Garibai 6C • 20500 Arrasate
Tel: 943 71 19 81
Fax: 943 71 19 82
GIPUZKOA
* Zure erosketak sei hilabetean ordaintzeko aukera, interes barik

# Goienka2a

Eguaztena / 2003ko apirilaren 30a

Kultura eta aisialdia

Apirilaren 30etik maiatzaren 9ra




Azken urteotan abeslari berrien gaineko saioek arrakasta handia izan dute. Musika talde eta abeslari berriak ezagutzeko eta ezagutzera emateko beste bide bat da. Ibarrean ere baditugu artistak, oso gazteak, gainera, dagoeneko arrakasta ezagutu dutenak. Horrez gainera, artista berri horiek animatzen dituzten jarraitzaileak ere ez dira gutxi. Ikusi besterik ez dago joan den zapatuan Bergarako Jam aretora Betizu taldearen kontzertua ikustera zenbat gaztetxo joan zen: lepo bete zuten aretoa. Harrobirik ez da falta, ezta jarraitzailerik ere! /14

# BETIZU!

ARGAZKIA: ENEKO AZKARATE

MUSIKA/ ABESLARI GAZTEAK

# Gazteak bezain arrakastatsuak

MARKEL DURÁNEK, UXUE RODRÍGUEZEK ETA XABIER VALLINAK BADAKITE ZER DEN JENDAURREKO SAIOETAN ARRAKASTA IZATEA

IKER BARANDIARAN

**Azken urteotan abeslari berrien gaineko saioek arrakasta handia izan dute. Musika talde eta abeslari berriak ezagutzeko beste bide bat da, eta era horretako saioekin ezezagunak ziren artista asko ezagun egin dira. Bada, Debagoienean ere baditugu artistak, dagoeneko arrakasta lortu dutenak.**

Markel Duránek, Uxue Rodríguezek eta Xabier Vallinak musikatik bizi izatea dute helburu. Hori da euren ametsa, eta dagoeneko hasi dira amets hori lortzeko lanean. Jakin badakite amets hori lortzea ez dela batere erraza izango, baina saiatu behintzat saiatuko dira. Gazteak izan arren, telebistako saioetan eta lehiaketetan argi erakutsi dute kanturako abilezia dutela.

Telebistan behin eta berriro ikusten dituzte arrakasta izan duten abeslariak, eta eurek ere bide hori jarraitu nahi dute; are gehiago, neurri txikiagoan, baina dagoeneko badakite zer den arrakasta lortzea. Badakite zer den *casting* baten edo lehiaketa baten parte hartzea, eta dagoeneko gauza dira taula gainean beldur barik abesteko.



**MARKEL DURÁN / ARRASATE**
**11 urte**

Markel Durán arrasatearrak biolina eta akordeoia jotzen ditu Arrasate Musikalen. A3-ko *Menudas estrellas* saioan abestu behar zuen, baina saioa kendu egin zuten. Eurovision Juniorko *casting*-a egin zuen, eta ekainean esango diote sailkatu den edo ez. Joan den astean ETBko *Esta es mi gente* saioan abestu eta dantzan egin zuen. Markelen ametsa Amaia Udal Antzokian abestea da.



**UXUE RODRÍGUEZ / BERGARA**
**11 urte**

Uxue Rodríguezendako azken urtea oso positiboa izan da. Joan den urtean *Betimu* eta *Betishow* saioetan ibili zen, eta orain Betizu taldeko partaide da. Telebistako saio horietan parte hartzeko hainbat *casting*-etara aurkeztu da, eta ez da damutzen. Betizu taldeak arrakasta handia izan du, eta Uxue gustura dabil. Orain duen ametsa kontzertuak ematen jarraitzea eta lekuak ezagutzea da.



**XABIER VALLINA / ARRASATE**
**14 urte**

Aitaitarengandik datorkio kantuarekiko zaletasuna. 12 urterekin ekin zion, *Betimu* eta *Betishow* saioetan. Betizu talderako *casting*-erako deitu zioten, eta finalista geratu zen. Orain dela gutxi Euskal Kantu Txapelketa irabazi zuen, Gipuzkoan; eta ekainean Euskadiko Txapelketan lehiatuko da. Horrez gain, *Operación Triunfo* saiorako aurkeztekotan dabil. Abeslari ezagun izatea da Xabierren ametsa.

### LAN EGITEKO GOGOAREKIN

Ibarreko hiru abeslari gazte horiek argi daukate etorkizunari begira gauzak lasai hartu behar dituztela. Eurek dituzten ametsak beste milaka gaztetxok ere badituzte, eta orain arrakasta duten arren, etorkizunean batek daki noraino iritsiko diren. Horregatik, argi daukate gogor egin behar dutela lan, hori izango daeta etorkizunean ere arrakasta izateko bide bakarra.

Lehen ere esan dugu era horretako telebista saioek arrakasta handia dutela. Horren adibide garbia Betizu taldea da. Betizu taldea Euskal Telebistako *Betizu* saioaren fruitua da, eta talde horrek sekulako jarraitzaile mordoa du. Joan den zapatuan Bergarako Jam aretoan kontzertua eman zuen Betizu taldeak, eta gauza bi argi geratu ziren: batetik, Betizu taldeko abeslariek oso maila ona daukatela; eta, bestetik, talde horrek sekulako arrakasta duela, Jam aretoa bete-beteta egon zen-eta. Gazte-gaztetatik arrakasta izateak bere ordaina izaten du, baina abeslari horiek txori gutxi dute buruan. Ametsak lortzeko amets egin beharrean, argi daukate lan egitea dela bide bakarra. Horrez gainera, zortea behar da; zorte handia, gainera.

Indonesiako altzariak

Erdi-prezioan!

**URRETXUn**
**Udaberri kanpaina**
(maiatzaren 2tik ekainaren 30era arte)



ORDUTEGIA:
10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara
(astelehenetik zapatura)
eta 11:00etatik 13:00etara (domeketan)




**Indonesiatik inportaturik, zure etxerako mota guztietako tekazko altzariak**

Tel.: 943 72 53 26 • *www.lba-antic.com*

## Arrakasta lortzeko alde batera utzi behar dena

**Telebistako saio eta txapelketetan parte hartzeko, denbora luzea behar da: entseguak, kontzertuak, lehiaketak... Eta denbora hori guztia izateko, gazte horiek beste gauza asko alde batera utzi behar izaten dituzte. Uxue Rodriguézek, nahiz eta Betizu taldean jardun, ez du eskolarik galtzen. Kazetaritza ikasi gura du. Argi dauka lagunekin egoteko lehen baino denbora laburragoa duela, eta denbora hobeto aprobetxatzen saiatzen da. Xabier Vallinak, berriz, ETBko *Betizu*-ko grabazioak izan zituenean eskola batzuk galdu zituen, baina haren esanetan, ez ziren ordu asko izan; ondo konpontzen zen. Ez du uste grabazioek eskolan eraginik izaten zutenik.**

**Markel Duránek aspalditik dauka abesteko zaletasuna —6 urte zituenetik—, baina joan den astera arte ez du telebista saio baten abesteko aukerarik izan. *Esta es mi gente* saioan parte hartu zuen, eta oso ondo, gainera. Ez dauka entsegu berezirik egin beharrik. Hala ere, lagunekin zapatuetan batez ere egoten dela esan digu, biolina eta akordeoia jotzen dituelako. Gainera, nota onak ateratzen ditu.**

**MUSIKA/ EJEA DE LOS CABALLEROSKO ABESBATZA TXAPELKETA**

# Oñatiarrak onenak kantuan

## OÑATIKO GANBARA ABESBATZAK IRABAZI DU EJEA DE LOS CABALLEROSKO TXAPELKETA PRESTIGIODUNA

IÑAZIO ARREGI

**Oñatiko Ganbara abesbatzak Ejea de los Caballeros herriko abesbatzen txapelketa irabazi zuen aurreko aste bukaeran. Ikus-entzuleen saria ere irabazi dute oñatiarrek, Bartzelona, Asturias, Valentzia, Madril, Zaragoza, Bizkaia eta Nafarroako beste abesbatza batzuei nagusituta.**


GANBARA
**Arrakasta handia lortu dute Oñatiko Ganbara abesbatzakoek asteburuan, Zaragozako Ejea de los Caballeros herrian.**

Ejea de los Caballeros Zaragozako Cinco Villas eskualdeko herri garrantzitsuena dugu. Nafarroaren eta Bardeen mugetan kokatzen den lurralde horrek laborantza du diru iturri nagusi. 50eko hamarkadan Esako ur-biltegia eraiki eta eskualde osoa zeharkatu zuen Bardeetako ubidea egin zuten. Haren ondorioz, uztak ziurtatu eta lana eta aberastasuna heldu ziren. Hamasei mila bizilagun ditu gaur egun eta inmigrazioaren eragina begi bistakoa da bertako kaleetan. Era berean, Morocco izeneko tabernarik ere ikus daiteke.

Ejeak azkar eta presaka hazitako hiri baten antza du. Etxebizitza berriak, baina gustu arkitektoniko eskasekoak. Esan daiteke hirigintza ez dela ejearren arazo eta kezka nagusia. Ura bai. Eta urarekin lotuta ospatzen dituzte herriko jai garrantzitsuenak: Uraren jaiak. Hiru egun irauten duten jai horietan ez da aldarrikapenik falta izaten; domekan, apirilaren 27an, jaien egitarauan sartzen zen Ejeako Udalak deitutako kale bilkura bat. Goiburua: *Trasvase, nunca. Yesa ya.*

Jai horietan kulturak eta aisialdiak ere badute tokia, eta kultura ekintza guztien artean garrantzitsuena azken hogeita hamalau urteotan antolatu duten abesbatza lehiaketa da. Ospe handikoa zaleen artean.

Aurten gure ibarreko ordezkaritza bat izan dugu: Oñatiko Ganbara abesbatza, hain justu. Harekin batera, Bartzelona, Asturias, Valentzia, Madril, Zaragoza, Bizkaia eta Nafarroako abesbatzak. Hiru saio izan dira: zapatu arratsaldez eta domekan goiz eta arratsaldez.

Zapatua izan zen gerora irabazle geratu zirenen txanda. Euskaldun multzo bat zegoen ikusleen artean: oñatiarrak eta oreretarrak. Ekitaldiaren hasieran Ejeako abesbatzak jardun zuen aurkezle gisa, hark ez zuen-eta parterik hartu. Txapelketako derrigorrezko lanarekin eman zioten hasiera ekitaldiari: *S' ha feito de Nuey,* aragoierazko letra duen jota dotorea. Gero, *Eres tú, No llores por mí Argentina* eta *Bullerenque* kolonbiar kantuarekin jarraitu zuten.

Horiek bukatu ondoren Avileskoak eta gero, oñatiarrak. Aurrera joan ahala, abesbatzen arteko aldea nabarmenduaz joan zen. Avileskoek Ejeako abesbatzak egindakoak hobetu zituzten, eta oñatiarrek nabarmen gainditu zuten aurreko bien maila. Ikusleen txalo zaparrada adierazle garbiena. Derrigorrezkoaz gainera, aragoieraz idatzitako beste bat ere abestu zuten: *Cuam S' amague el moixonet*; *Lux aurumque* izeneko hirugarren bat, eta serbiar folkloreko *Fatise Kolo*.

Egia esan, Oñatiko Ganbara abesbatzak oso talde orekatua eraman du. Hogei bat lagunek osatua, neska eta mutil erdi bana. Teknika eta ahotsez ondo hornituta dagoen talde horri akatsen bat nabarmentzekotan, orain arte izan duen gizonezkoen ahots urritasuna da. Azken urtean gazte batzuk gehiago lotu zaizkio taldeari, eta emaitza ikuskagarriak (entzungarriak) lortu dira.

Talde sendoa. Nesken eta mutilen arteko oreka. Teknika eta ahots apartak. Horrela ulertu dute Ejea aldean, eta epaimahaiaren saria ez ezik, ikus-entzuleena ere ekarri dute etxera.

Kanpoan lortutako arrakasta horiek etxean egiaztatu eta dastatu ahal izatea ez litzateke txarra izango. Ea noiz eskaintzen zaigun ibarrekooi talde horren kontzertu bat entzuteko aukera.

**NIREAUKERA**




## 'CARNIVAL DIABLOS'
### Annihilator

**Aspaldidanik musika gogorra, heavya eta metala atsegin ditut, eta aukeraketa honetan ez naiz estilo horietatik urrundu. Disko hau aukeratu dut daukan indarrarengatik eta gogortasunarengatik. Nire iritziz, Annihilator gaur egun metal esparruan dagoen talde onenetarikoa da. Annihilator taldearen *Carnival Diablos* diskoak bere grabazioaren kalitatearengatik eta duen soinu metaliko boteretsuarengatik erakarri nau.**

**Joan den urtean Bergarako Jam aretoan gozatu ahal izan genuen Kanadako talde horren musikarekin, egin zuten kontzertu ahaztezin baten. Musika estilo hori atsegin duen edonorendako guztiz gomendagarria da Annihilator eta, batez ere, *Carnival Diablos* izeneko diskoa.**



**Jon Lasagabaster**

Arrasate, 38 urte. Arropa saltzailea. Aspalditik musikaria ere bada.

**Hilarion jatetxea-taberna**
Larrea plaza 5 • ARRASATE • 943 77 01 69
Eguneko menuak
Karta zabala
Era guztietako bazkari eta afariak
Talde gazteendako prezio bereziak
Plater konbinatuak / Ogitartekoak / Sandwichak

publidenak.
Era guztietako publizitate-artikuluen fabrikazioa, markaketa eta banaketa.
• Enpresetara bisitak
• Enpresa-opariak
• Promozioak
• Publizitate-artikuluak
• Gabonetarako otarrak
• Artikulu pertsonalizatuak
• Diseinua. Arte grafikoak.
• Fotokopiak zuri-beltzean eta koloreetan.
• Estanpazioak kamisetetan eta txapeletan.
• Koadernatzeak eta plastifikatzeak.
• Trofeoak. Txapela bordatuak.
• Era guztietako errotuluak.
• Seinaleak, plaka ofizialak.
• Pankartak eta banderak.
• Laser bidezko markaketak, serigrafia, transferrak, termograbaketak eta bordatuak
Edozein kopuru. Epe laburrak. Aurrekontuak konpromiso barik. Erakusketa zabala.
HELBIDE BERRIA: ARRASATE PASEALEKUA 8 ARRASATE
TEL.: 943 77 06 09 (4 linea)
FAXA: 943 71 23 77
POSTA-E: publidenak@euskalnet.net

# Api. 30–Mai. 9

**Leire Kortabarria** / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## ANTZERKIA

### ARETXABALETA

► ***Biblia osoa… gutxi gorabehera* antzezlana** izango da maiatzaren 9an, kiroldegian, 22:30ean.

## DEIAK

### ANTZUOLA

► **Telelaguntzaren inguruko hitzaldia** izango da hilaren 6an, erretiratuen elkartean, 17:30ean.

► **Artziniegara irteera** antolatu du erretiratuen elkarteak, maiatzaren 8rako, eguena. Izena emateko, jo euren egoitzara. 24 euro ordaindu beharko dituzue.

► ***La vieja herida* izeneko liburua** aurkeztuko du Floren Aoizek datorren egubakoitzean, maiatzak 9, udaletxean, 19:15ean, Gertu gae herri plataformaren eskutik.

► **Udalekuetan parte hartzeko** epea zabaldu du Antzuolako Udalak, bai begiraleendako, bai eta umeendako ere. Argibide gehiago lortzeko, jo udaletxera.

### ARAMAIO

► **Eskola garraiorako dirulaguntzak** banatuko ditu Udalak, DBH, HSAOG, Erdi edo Goi mailako heziketa zikloak, edo Unibertsitate ikasketak egiten dabiltzanendako. Matrikularen ziurtagiria eta ordainagiria aurkeztu beharko dira. Eskaera egiteko azken eguna maiatzaren 23a izango da, udaletxean.

► **Udalekuetarako begiraleak** behar ditu Udalak. Izena emateko mugaeguna maiatzaren 16a izango da, udaletxean edo ludotekan.

### ARETXABALETA

► **Udaleku irekietarako begiraleak** behar ditu Udalak. Curriculumak kultura etxera edo udaletxera eraman beharko dituzue, edo *kultura@aretxabaleta.net* helbide elektronikora bidali. Arduradun taldeko kide izan gura baduzue, aipatu zuen gutunean.

### ARRASATE

► **San Juan jaietako danborradan** parte hartu gura dutenek SUDC elkarteak Pablo Uranga kalean duen egoitzara jo beharko dute, izena emateko, 18:00etatik 20:00etara. Entseguak hilaren 10ean hasiko dira.

► **Mikel Piedehierro iheslari ohia** herrira itzuli dela-eta, omenaldia egingo diote maiatzaren 3an, zapatua, Zigorrolan, 19:00etan.

### BERGARA

► ***Francorekin egon zen Euskal Herria* delako hitzaldia** izango da martitzenean, maiatzak 6, Miguel Altuna institutuan, 19:30ean.

► **Gasteizera irteera** antolatu du San Joxepe erretiratuen elkarteak datorren egubakoitzerako, maiatzak 9. Alde zaharra, Eusko Legebiltzarra… bisitatuko dituzte, eta elkarrekin bazkalduko dute hantxe. Arratsaldea libre izango dute.

### ESKORIATZA

► **Udaletxea zaharberritu dute,** eta inaugurazio ekitaldia gaur izango da, egubakoitza, 18:30ean. Ekitaldi horretan bertan Udalaren irudi korporatibo berria aurkeztuko dute.

### EUSKAL HERRIA

► **Borondatezko euskal gazte lankideen programa** jarri du abian Eusko Jaurlaritzak, 20 urtetik gorako gazteendako. Eskaera egiteko mugaeguna maiatzaren 8a izango da. www.euskadi.net/bopv27datos/2003/04/0302393a.pdf internet gunean izango duzue argibide gehiago.

► **Euskarazko film laburren lehiaketa** deitu du Badator elkarteak, eta laguntza behar dute proiektu berri hori aurrera eramateko. Kolaboratzaile guztiak lehiaketaren web gunean eta egiten dituzten erakustaldietan iragarriko dituzte. Interesa baduzu, jar zaitez eurekin harremanetan, badator@euskalnet.net helbidean.

► **Euskara ikasten dihardutenendako** familia euskaldunetan egonaldiak antolatu dituzte, HABEren laguntzarekin. Hori dela-eta, ikasleok hartzeko gertu dauden familiak behar dituzte. Baldintzak jakiteko, deitu 943 47 44 47 telefonora.

### OÑATI

► **Cabañeros-eko parke nazionalera irteera** antolatu du Natur Eskolak maiatzaren 1etik 4rako. Argibideetarako, deitu 943 71 64 04 telefonora.

► **Maiatzeko zubirako, hainbat bisita gidatu** prestatu ditu Oñatiko Turismo Bulegoak. 12:00etan eta 17:00etan izango dira. Argibide gehiagorako, deitu 943 78 34 53 telefonora.

## LEHIAKETAK

### ANTZUOLA

► **Kukumarro erakusketa eta lehiaketa** deitu du Udalak, adin guztietako herritarrendako. Bakarka nahiz taldeka har daiteke parte lehiaketan. Izena emateko azken eguna maiatzaren 12a izango da. Horretarako, jo udaletxera.

► **Balkoietako eta leihoetako loreapainketa lehiaketa** deitu du Udalak. Sari banaketa San Juan bezperan izango da, ekainaren 23an, alegia.

### DEBAGOIENA

► **San Pankrazioko literatura lehiaketa** deitu du Mondragon Unibertsitateak, ikastetxeko ikasle eta langileei zuzenduta. Bidali lanok Ikasleen Kontseilu Sozialeko idazkaritzan, Eskolako jantoki gainean.

### OÑATI

► **IV. Oñati Hiria literatura sariak** deitu ditu udalak, 18 urtetik gorako edozeini zuzenduta. Maiatzaren 23ra arte duzue parte hartzeko aukera.

## JAIAK

### ARRASATE

► **San Andres auzoko jaiak** izango dira maiatzaren 1etik 4ra bitartean.

### BERGARA

► **Labegaraieta auzoko jaiak** izango dira maiatzaren 1ean, eguena.

► **Irukurutzeta eguna** izango da domekan, maiatzak 4. 11:00etan, pago

ZORIONAK, XABIER URIZAR!




M
MEMESA SL
Industri hornidurak
943 71 24 25



► ANTZERKIA

### GERRAN ERBESTERATUTAKO UMEEN TRISTURA ETA ALAITASUNA

1937 urteko maiatzaren 7an, Euskal Herriko milaka umek erbestera ihes egin behar izan zuten. Euren familietatik urrun, benetako bakardadea eta tristura zer den gertutik jakin zuten. Istorio haiek iraganean gelditu dira, baina askok ez dituzte ahaztu. Kukai dantza taldeak eta Ttanttaka antzerki taldeak ume haiek omentzeko 1937, Gogoaren bidezidorretatik lana prestatu dute. "Ume horien artetik zazpi aukeratu ditugu, euren historia kontatzeko, eta eurek erakutsiko digute une garratzak alaitasunez ere zipristindu daitezkeela", diote egileek. Euskal musika, doinu poetikoak eta, batez ere, dantza izango dira ardatz, "bat dantzan aritzen denean, bihotza poztu egiten delako".

**Non:** Bergarako udal pilotalekuan. **Noiz:** maiatzaren 2an, egubakoitza. **Ordua:** 22:30ean.



### AITZORROTZ EGUNA, ASTEBURUAN

Aitzorrotz Eguna ospatuko dute maiatzaren 4an, Eskoriatzako Gazte Asanbladak antolatuta. Aurretik, zapatuan, hilaren 3an, hainbat ekitaldi izango dira: ipuin kontalariak, abeslariak, bazkaria… eta 4an bertan, 09:30etik aurrera, musika, dantzaldia, meza…

bedeinkatuaren ondoan meza izango da; 12:00etan, salda eta txorizo jana; 13:30ean, Irukurutzetara igoera; eta 15:30ean, erromeria.

## ERAKUSKETAK

### ARAMAIO

► **Espainiako Gerran fusilatu zituzten debagoiendarren** gaineko erakusketa ikusteko aukera izango da Sastiñan, maiatzaren 19ra arte.

### BERGARA

► **Javier Merino margolariaren** erakusketa dago kultura etxean, maiatzaren 11ra arte.

► ***Berriro ez-Nunca más* Espainiako gerraren gaineko erakusketa** egongo da ikusgai udaletxean, maiatzaren 11ra bitartean.

### ESKORIATZA

► **Euskal jantzien erakusketa** izango da maiatzaren 4tik 11ra, kultura etxean.

### OÑATI

► ***Ipuinez ipuin, haur literaturaren aretoa*** erakusketa egongo da kultura etxean, gaur, apirilak 30, azken egunez.

## MUSIKA

### ARRASATE

► **Zea Mays eta Sorkun**en emanaldia izango da eguenean, maiatzak 8, Uarkape pilotalekuan, 21:30ean.

### BERGARA

► **Buddy Miles & Tonky Blues Band** taldearen saioa izango da gaur, eguaztena, Jam aretoan, 22:00etan.

### ESKORIATZA

► **Mikel Urdangarinen** emanaldia izango da datorren egubakoitzean, maiatzak 9, kiroldegian, 22:30ean.

## IKASTAROAK

### ARETXABALETA

► **Chi-kung hastapen ikastaroa** antolatu Sadhana yoga eta psikoterapia zentruak. Argibideetarako, deitu 943 71 41 91 telefonora.

### ARRASATE

► **Bioenergetika ikastaroa** antolatu du Arrasate Yoga Elkarteak, maiatzaren 7tik ekainaren 25era arte, astelehen eta eguaztenero, 18:30ean. Izena emateko, deitu 616 96 57 95 zenbakira.

► **Hastapen mailako piraguismo ikastaroa** antolatu du Mondragon Unibertsitateak, maiatzaren 5etik 8ra, 18:45-20:15, Albinako urtegian.

# Zinema

### ARRASATE

■ **ALAI ZINEMA**

***Amor con preaviso***
Eguena: 17:00, 19:30, 22:00.
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.

***Sucedió en Manhattan***
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena eta martitzena: 19:00, 21:30.

### BERGARA

■ **NOVEDADES**

***Las horas***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30.

***Las hermanas de la Magdalena***
Eguena: 17.00, 19:30, 22:15.

***Adaptation***
Eguena, hilak 8: 20.00.

### OÑATI

■ **OÑATIKO ZINEA**

***La prueba***
Eguena: 19:30, 22:30.
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

***Pokemon 3***
Zapatua eta domeka: 17:00.

### EIBAR

■ **UNZAGA**

***X-Men 2***
Eguaztena: 19:30, 22:15.
Eguena: 17:00, 19:30, 22:15.
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

■ **RIALTO**

***Mi vida sin mí***
Eguena: 17:00, 19:30, 22:15.
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

### GASTEIZ

■ **STER ZINEMAK**

***Dog soldiers***
Eguaztenetik zapatura: 20:35, 22:50, 01:05.
Domeka: 20:35 01:05.

***Sucedió en Manhattan***
Eguaztenetik zapatura: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.
Domeka: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45.

***La prueba***
Eguaztenetik zapatura: 20:10, 22:35, 00:55.
Domeka: 20:10, 22:35.

***Spirit***
Eguaztenetik domekara: 16:30, 18:20.

***X-Men 2***
Eguaztenetik zapatura: 17:00, 19:40, 22:20, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:40, 22:20.

***Recién casados***
Eguaztenetik domekara: 16:15, 18:25.

***El libro de la selva 2***
Eguaztenetik domekara: 16:55, 18:35.

***Destino final 2***
Eguaztena, egubakoitza eta zapatua: 20:15, 22:10, 00:05.
Eguena eta domeka: 20:15, 22:10.

***Los rebeldes de Shangai***
Eguaztena, egubakoitza eta zapatua: 17:30, 19:55, 22:25, 00:50.
Eguena eta domeka: 17:30, 19:55, 22:25.

***Johnny English***
Eguaztena, egubakoitza eta zapatua: 16:10, 18:05, 20:00, 21:55, 00:00.
Eguena eta domeka: 16:10, 18:05, 20:00, 21:55.

***El oro de Moscú***
Eguaztena, egubakoitza eta zapatua: 20:20, 22:30, 00:40.
Eguena eta domeka: 20:20, 22:30.

***Los Thornberrys***
Eguaztenetik domekara: 16:25, 18:15.

■ **GURIDI**

***X-Men 2***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00

***Generación robada***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***Johnny English***
Egunero: 17:30, 20:00.

***My kingdom***
Egunero: 22:30.
Zapatua: 22:30, 01:00.

***Sucedió en Manhattan***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***El libro de la selva 2***
Eguaztenetik domekara: 17:00, 18:45.

***Mi vida sin mí***
Egunero: 20:30, 22:30.
Zapatua: 20:30, 22:30, 01:00.

***El cazador de sueños***
Egunero: 19:45, 22:30.
Zapatua: 19:45, 22:30, 01:00.

***Pacto de brujas***
Eguaztenetik domekara: 17:00.

***Sin motivo aparente***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.

■ **MIKELDI**

***Tiempo de tormenta***
Eguaztenetik zapatura: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

***Johnny English***
Eguaztenetik zapatura: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

***Antwone Fisher***
Eguaztenetik zapatura: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

***X-Men 2***
Eguaztenetik zapatura: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

***Las horas***
Eguaztenetik zapatura: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

***El cazador de sueños***
Eguaztenetik zapatura: 17:15, 20:00, 22:45.
Domeka: 17:15, 20:00.

***Los Thornberrys***
Egunero: 17:15.

***El pianista***
Eguaztenetik zapatura: 20:00, 22:45.
Domeka: 20:00.

***El americano impasible***
Egunero: 17:15.

***Gangsters de Nueva York***
Eguaztenetik zapatura: 19:45, 22:45.
Zapatua: 20:00.

***Frida***
Eguaztenetik zapatura: 17:15, 20:00, 22:45.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:30.

■ **FLORIDA-GURIDI**

***Los novios búlgaros***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***Bowling for Columbine***
Egunero: 17:30, 22:30.

***Café de noche***
Egunero: 20:00.
Zapatua: 20:00, 01:00.

***El sueño de Valentín***
Egunero: 17:30.

***Jet lag***
Egunero: 22:30.
Zapatua: 22:30, 01:00.

***Palabras encadenadas***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***Chicago***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.

***Vidas contadas***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.

***El lápiz del carpintero***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.

***Las horas: ●●●● / Chicago: ●●●● / Adaptation (El ladrón de orquídeas): ●●● / Gángsters de Nueva York: ●●● / Mi vida sin mí: ●●● / El americano impasible: ●●***

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

## KRITIKA

### EL ÚLTIMO GOLPE

PUNTUAZIOA: ●●

**ZUZENDARIA:** David Mamet.
**AKTOREAK:** Gene Hackman, Danny de Vito, Rebecca Pigdeon.

David Mamet ospe handiko gizona da Ameriketako Estatu Batuetako kultura arloan. *Glengarry Glen Ross* eta *American Buffalo* antzerki lanak idazteaz gain, gidoilaria eta zinema zuzendaria ere bada. Egindako filmen artean, *Homicidio* edo *El caso Winslow* izenburu erakargarriak ditugu. Horiek bere pertsonaien dudamudak eta jasan behar dituzten arazo moralak islatzen dituzte. Baina, mota horretako lanekin batera, beste Mamet bat ere badago, *Casa de juego* edo *El último golpe* zuzendu dituen Mamet, hain justu ere. Horietan, gidoilari-zuzendariak ikuslearekin jolasten gozatzen du, eta ikuslea pertsonaien artean gertatzen diren azpijokoen, trikimailuen eta planten lekuko bihurtzen du. Horrela erakusten zaigun errealitateak bira eta ezuste ugari izaten ditu. Lan horietan, artifizioa nagusi dugu. Film biek antzekoak diren ezaugarriak dituzte, baina ezaugarri ezberdin bat ere bai: pertsonaien tratamendua, hain justu ere.



*El último golpe* maila handiko lapurreta sofistikatu bat egin behar duten lapurren istorioa da. Lapurreta detaile handiz eta zehaztasun osoz azaltzen zaigu. Ustekabeak eta traizioak konpontzen dira, gertatutakoak pertsonaiak gehiegi hunkitu barik. Eta horixe da arazoa: filmaren bukaeran ia ez ditugu pertsonaiak ezagutzen. Horien egingizun bakarra efektu kolpeen bitartez ikuslea harritzea da, eta horregatik, hezur-haragizko pertsonaiak falta zaizkigu. Ez dakigu pertsonaiek zer sentitzen duten, ez dira ikaratzen, eta horrela, azkenean gertatzen zaiena bost axola zaigu. *Casa de juego* filmean ez zen halakorik gertatzen. Mota bereko filma izan arren, ondo garatutako pertsonaia nagusi bat zuen: engainu bat jasango duen psikiatra bat, hain justu ere. Haren erreakzioak eta zer pentsatzen eta sentitzen zuen ikusten genuen, eta pertsonaia haren bitartez ikuslea istorioaren traman askoz gehiago murgiltzen zen.

Dena dela, *El último golpe* gustura ikus daitekeen filma da. Artifizioz eta trikimailuz betea, oso erritmo onez kontatua, baina zuzendaria David Mamet dela kontuan izanik, motz geratzen da.

ANTONIO ZABALA

SARE
INMO f3 inmobiliaria
Erdiko kalea 26
ARRASATE
943 79 12 79

ETXEBIZITZAK

ARRASATE
• 98 m², 4 logela, oso eguzkitsua eta garajearekin.
• 85 m². Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Goian 8 ganbara dauzka. Erdialdean.
• 69 m². Logela bi, egongela, sukaldea, bainugela eta sotoa. Guztiz berritua.

BERGARA
• 70 m². Erdialdean. Bi logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Oso eguzkitsua.

ANTZUOLA
75 m². Orain dela bost urte guztiz berrituta: leihoak, berogailua... Hiru logela, egongela eta bainugela. Ganbara dauka.26.800.000 pta.

Etxebizitzen aukera zabala Gipuzkoako kostaldean eta Mediterraneoan.

ESKAERA HANDIAGATIK ETXEBIZITZAK BEHAR DITUGU SALGAI EDO ALOKAGAI.

# Iragarki sailkatuak

1. ETXEBIZITZAK
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

2. GARAJEAK
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

3. LOKALAK
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

4. LANA
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

5. IRAKASKUNTZA
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

6. MOTORRA
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

7. ANIMALIAK
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

8. DENETARIK
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

10. RELAX

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 76 92 71**
**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 12 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.**
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.
943 33 18 37 (HERNANI)
649 84 67 09 (BERGARA)

Korosti INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

ANTZUOLA / Eraikitzen ari diren elkarri lotutako etxeak
276.465,57 euro (46 milioi).
Semisotoa. Garaje handia eta txokoa.
Beheko solairuan: sukaldea, jangela, egongela, bainugela.
Lehen solairuan: hiru edo lau logela eta bi bainugela.
Teilatupeko solairua: m² ugari egokitzeko moduan.

BERGARA / Etxebizitzak salgai
• Arane erreka. 87 m² erabilgarri. Trastelekua. Oso ondo dago.
BERGARA / Tabernak salgai eta errentan
BERGARA / Lokalak salgai eta errentan
BASERRIAK
• Angiozar: 200 m² x 3 solairu, 38.000 m²-ko lursaila, oso ondo kokatua.
• Ormaiztegi, Osintxu, Berastegi (baserria eta borda), Mutiloa, Elosu, Zegama, Asteasu.

Etxebizitzak eta lokalak salgai edo alokagai behar ditugu.

OÑATI
ZUBILLAGAN 800 M²-KO INDUSTRIA PABILIOIA SALGAI
943 71 60 91

ARETXABALETA
TABERNA, HARATEGIA ETA PLATER KONBINATUAK DITUEN LOKALA SALGAI.
943 77 03 08

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Arrasate.** Etxebizitza salgai bizileku-zona baten. 263 m2. 943 79 92 02.

**Landa etxea.** 270 m2. Hiru solairu eta upeltegia. %75 eraikia. Sierra de Gatan. 102.172 euro, negoziagarriak. 943 79 52 35.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Almeria.** Etxebizitza ematen da errentan, hiri erdigunean, uztailean, abuztuan eta irailean. 649 03 47 20.

**Almeria.** Etxebizitza ematen da errentan, hondartza aurrean, abuztuan eta irailean. 649 03 47 20.

**Antzuola.** Etxebizitza ematen da errentan. 943 76 21 06.

**Arrasate.** Apartamentua ematen da errentan, erdialdean. 943 71 64 40.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan erdialdean. 669 66 54 99.

**Bergara.** Bolun etxebizitza jantzia ematen dut errentan. 607 41 14 44.

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan Artzamendin. Deitu 13:00etatik 15:00etara bitartean. 943 76 22 08.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Oñati.** Etxebizitza hartuko genuke errentan datorren ikasturterako. 652 72 72 32 edo 699 49 05 96.

ARRASATE
NESKA EDO MUTILA BEHAR DA TABERNAN LAN EGITEKO.
649 62 23 07

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Logela bat hartuko nuke errentan. 696 55 52 09.

### 106. BESTELAKOAK

**Nafarroa.** Lizarratik gertu dagoen landetxe baten logelak eskaintzen ditugu. 699 18 75 68.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** Garaje itxia salgai Araba ibilbideko 27an. 20 m2. 943 79 69 83 edo 627 90 68 91.

ARRASATE
SUKALDARI LAGUNTZAILEA BEHAR DA KAFETEGI BATEN LAN EGITEKO.
943 79 11 15

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garaje itxia ematen da errentan Kontzezino kalean. 943 79 55 20.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Aramaio.** Emakumea behar da umeak zaintzeko. Gauez deitu. 646 19 49 98.

**Arrasate.** Emakumea behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 657 70 09 59.

**Bergara.** Emakumea behar da etxeko lanak egin eta ume bi zaintzeko. 607 21 36 38.

**Bergara.** Neska euskalduna behar da umeak zaintzeko 16:30etik 20:00etara. 943 76 72 04 edo 943 76 10 31.

### 402. ESKAERAK

**Antzuola.** Emakume gaztea gertu garbiketa lanak egin edo umeak zaintzeko. 657 11 29 76.

**Antzuola.** Gizon gaztea edozein motako lana egiteko gertu. 657 11 29 76.

**Aretxabaleta.** Jostuna gertu arropak konpontzeko. Mabel. 635 73 20 36.

**Arrasate.** Emakumea gertu etxeko lanak egiteko. 943 77 00 26.

**Arrasate.** Mutil ekuadortarra gertu edozein lan egiteko. 678 95 09 76.

**Arrasate.** Mutil ekuadortarra gertu edozein lan egiteko. Gidabaimena dauka. 679 20 99 24.

**Arrasate.** Neska gertu etxeko lanak egin eta pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko, hartzen duten etxean bertan bizi izaten. 645 70 03 19.

**Bergara.** Alemaniar Filologian lizentziadunak alemaneko eta ingeleseko eskolak ematen ditu. Nora. 943 76 41 75 edo 678 85 76 99.

**Bergara.** Hezkuntza Berezian tituludun neska gertu eskola partikularrak emateko. 646 32 43 04 edo 943 76 47 82.

**Bergara.** Neska gertu etxeko lanak egiteko. 696 84 19 51.

**Bergara.** Neska gertu jende nagusia zaindu eta etxeko edo garbiketa lanak egiteko. 655 61 52 76.

**Debagoiena.** Emakume euskalduna gertu etxeko lanak egin eta umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko. 659 82 75 18.

**Debagoiena.** Mutila gertu edozein lan egiteko. 660 68 55 94.

**Hainbat lan** egingo nituzke goizez: etxeko lanak, umeak zaindu, taberna edo bestelako lokal komertzialak garbitu... 943 76 23 09.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Peugeot** 205 autoa salgai. Diesela. 1997koa. 655 74 80 07.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Bizikleta** salgai. Urte bi ditu. Gutxi erabilia. Aluminiozkoa. Esekidura (suspentsioa). Shimano Alivio balaztak. 120 euro. 652 73 08 53.

**Txakurkumeak** salgai, setter ingeles arrazakoak. Pedigriarekin. Txertatuak eta parasitoen aurkako tratamendua eginda. 635 73 34 69.

### 805. TRUKATU

**Arrasate.** Atzerriko txanpon eta billeteak trukatuko nituzke, bildumarako. 943 79 54 95.

### 806. GALDU

**Arrasate.** Gernika Oinezkoen Zumardian urrezko eskumuturrekoa galdu nuen. Garrantzi handikoa da. Saritua izango da. 600 84 14 37.

**Bergara.** Deskuidoz txaketa bakeroa aldatu zidan norbaitek apirilaren 26an (zapatua) Ariznoa tabernan. Aldatu nahiko nuke. 635 70 77 65.



CG CONSULTORIO GINECOLOGICO
Talde osoa emakumearen eskura

Jaioaurreko diagnostikoa-ekografia ........ Antonio Estomba
Menopausia ........ Fernando Cristóbal
Endoskopia ginekologikoa ........ Alfredo Otalora
Laguntza bidezko ugalketa ........ Jose M. Gómez
Ainhoa Larrea
Titietako gaixotasunak ........ Domingo Murgiondo
Obstetrizia ........ Miguel Gabarain
Psikosexualitatea ........ Maria José Ruiz
Nerabezaroko ginekologia ........ Fatima Azkue
Hezur dentsitometria ........ J. Rodríguez

Arrasateko kontsultategia:
Zerkaosteta 17, behea
Tel.: 943 79 20 18

Policlinica Gipuzkoa

Donostia. Tel.: 943 30 82 08
Eibar. Tel.: 943 12 10 21
Irun. Tel.: 943 61 78 88

## AIPAGARRI

### Xabier Díaz de Zerio

BERGARA



Eskultore bergarar honen 35 lan daude ikusgai Isabako Museo Etnografikoan, maiatzaren 4ra arte. Harrizko, egurrezko eta burdinezko piezak dira guztiak. Aste Santuan jende mordoa joan da Xabierren erakusketa ikustera, baina, oraindik ere badago aukera, domekara arte, esan bezala.

### Urtzi Mendizabal

ARRASATE



Arrasateko Udalak laster argitaratuko du *Arrasateko Txoko Naturalak* liburua; Arrasate inguruko ekosistemak aztertu ditu liburu horretan Urtzi Mendizabal biologoak, Rosa Agirrebeña bergararrarekin batera. Guztira, 12 ekosistema ezberdin identifikatu dituzte udalerrian.

### Susana García

ARRASATE



Euskal Telebistako bigarren kateko *Date el bote* lehiaketan parte hartu berri du Susana García arrasatearrak; eta ez parte hartu bakarrik, baita diru mordoxka poltsikoratu ere, 1.500 euro, hain zuzen ere. Horretarako, gainerako hamar lehiakideak gainditu behar izan zituen.

## JAIOTAKOAK

**Ane Kortabarria Urzelai.** Oñatin, martxoaren 23an.
**Ekain Olaziregi Alberdi.** Bergaran, apirilaren 8an.
**Miren Miner Díez.** Bergaran, apirilaren 8an.
**Elene Abarrategi Arenaza.** Bergaran, apirilaren 11n.
**Ur Berraondo Labaien.** Bergaran, apirilaren 11n.
**Nekane Cabrera Morales.** Arrasaten, apirilaren 15ean.
**Aitor Azkargorta Barrutia.** Bergaran, apirilaren 16an.
**Paula Polo Aldanondo.** Oñatin, apirilaren 16an.
**Julen Galdos Oliveros.** Oñatin, apirilaren 18an.
**Ane Odriozola Lobo.** Oñatin, apirilaren 18an.
**Naroa Elortza Bikuña.** Oñatin, apirilaren 23an.
**Gorka Domínguez Barquero.** Bergaran, apirilaren 24an.
**Iman Aboubi El Mansouri.** Bergaran, apirilaren 25ean.

## HILDAKOAK

**Pedro Bengoa Gastiasoro.** Aretxabaletan, martxoaren 23an. 71 urte.
**Jose Andres Arietaleanizbeaskoa Larrañaga.** Oñatin, apirilaren 3an. 59 urte.
**Juana Zenitagoia Egidazu.** Arrasaten, apirilaren 4an. 91 urte.
**Felix Garmendia Astarloa.** Bergaran, apirilaren 4an. 87 urte.
**Jesusa Arabaolaza Abarrategi.** Arrasaten, 5ean. 96 urte.
**Eugenia Unzurrunzaga Arratibel.** Oñatin, 5ean. 86 urte.
**Jose Jabier Etxezarreta Etxeberria.** Antzuolan, 5ean. 73 urte.
**Eugenia Garro Azurmendi.** Arrasaten, apirilaren 6an. 89 urte.
**Felipe De Benito Pura.** Bergaran, apirilaren 6an. 82 urte.
**Flora Zabarte Beitia.** Arrasaten, apirilaren 8an. 93 urte.
**Anjel Cobos Irisarri.** Bergaran, apirilaren 8an. 81 urte.
**Felix Garmendia Astarloa.** Bergaran, apirilaren 4an. 87 urte.
**Esperanza Urra Ageo.** Arrasaten, apirilaren 9an. 84 urte.
**Luis Migel Elortza Aiastui.** Oñatin, apirilaren 9an. 57 urte.
**Mari Karmen Maiz Ezeizabarrena.** Arrasaten, 10ean. 68 urte.
**Jon Luque Couñago.** Bergaran, apirilaren 10ean. 17 urte.
**Francisca Vega Segundo.** Bergaran, apirilaren 10ean. 87 urte.
**Encarnacion Deogracias Cáceres.** Arrasaten, 11n. 61 urte.
**Mikel Zabala Markuleta.** Oñatin, apirilaren 12an. 46 urte.
**Zosimo Olmedo Paunero.** Arrasaten, apirilaren 13an. 87 urte.
**Isidoro Temprano González.** Arrasaten, apirilaren 15ean. 76 urte.
**Jabier Etxabarri Luquín.** Bergaran, apirilaren 17an. 69 urte.
**Francisco Paris Catalán.** Bergaran, apirilaren 17an. 69 urte.
**Jose Luis González Arregi.** Bergaran, apirilaren 17an. 58 urte.
**Maria Angeles Ormaetxea Luarizaristi.** Bergaran, 17an. 89 urte.
**Consuelo Sierra Segovia.** Bergaran, apirilaren 21ean. 96 urte.
**Felisa Arkauz Eraña.** Arrasaten, apirilaren 25ean. 83 urte.
**Juan Jose Laskurain Askasibar.** Bergaran, 25ean. 81 urte.
**Mari Carmen Valledor Lombera.** Arrasaten, 26an. 85 urte.
**Anjel Ruiz Santa Eulalia.** Bergaran, apirilaren 26an. 66 urte.
**Dolores Martínez Herraiz.** Arrasaten, apirilaren 27an. 62 urte.
**Jose Mari Epelde Gabilondo.** Bergaran, apirilaren 28an. 60 urte.



**Uxue Azkue Muxika**
Arrasate • Apirilaren 11a • 2,920 Kg. Gurasoak: **Iñaxio Azkue** (Eibar) eta **Edurne Muxika** (Arrasate). Argazkian, umea amarekin eta aitona **Gabin**ekin.



**Ibai García Carrascal**
Arrasate • Apirilaren 7a • 3,380 Kg. Gurasoak: **Carlos García** (Bilbo) eta **Ana Carrascal** (Arrasate). Argazkian, umea amaren besoetan.



**Elene Abarrategi Arenaza**
Bergara • Apirilaren 11 • 3,400 Kg. Gurasoak: **Roberto Abarrategi** (Arrasate) eta **Mariasun Arenaza** (Bergara). Argazkian, umea aitaren besoetan.



**Aratz López de Aretxaga Valle**
Antzuola • Apirilaren 13a • 3,200 Kg. Gurasoak: **Jon Valle** (Andoain) eta **Aitziber López de Aretxaga** (Bergara). Argazkian, umea gurasoekin.



**Ander Cuesta Cires**
Arrasate • Apirilaren 12a • 3,360 Kg. Gurasoak: **Basilio Cuesta** (Eskoriatza) eta **Mar Cires** (Arrasate). Argazkian, umea gurasoekin.



**Naroa Elortza Bikuña**
Oñati • Apirilaren 23a • 3,300 Kg. Gurasoak: **Carlos Elortza** (Oñati) eta **Miren Bikuña** (Oñati). Argazkian, umea aitaren besoetan.



**Xabier Martínez Ojuel**
Aretxabaleta • Apirilaren 27a • 3,400 Kg. Gurasoak: **Rosa Ojuel** (Legazpi) eta **Jabier Martínez** (Bilbo). Argazkian, umea amaren besoetan.



**Naroa Etxeberria Uribetxeberria**
Aretxabaleta • Apirilaren 26a • 3,650 Kg. Gurasoak: **Elisa** (Eskoriatza) eta **Xabier** (Arrasate). Argazkian, umea aitarekin ikus dezakegu.

**Patri Larrañaga**k eta **Teodora Iturbe**k 50 urte bete zituzten ezkonduta joan zen astean. 1953ko apirilaren 25ean, hain zuzen ere, ezkondu ziren Elorregiko San Prudentzio elizan. Orain, urrezko ezteiak ospatu dituzte senitartekoekin batera; meza eta bazkaria izan zituzten Elorregin. Zorionak, bikote, eta urte askotarako, familia osoaren partez!





**Amagoia Errasti** eskoriatzarra eta **Oier Gartzia-Etxabe** aretxabaletarra maiatzaren 3an ezkonduko dira Dorletan, eta ondoren bazkaria egingo dute. Ezkonbidaian, berriz, Zeelanda Berrira joango dira. Zorionak, bikote, familiaren eta lagunen partez!

### ESKELA

**Jon Luke Couñago**

**Donostia**n hil zen 2003ko apirilaren 10ean.

*Ez nau izutzen negu hurbilak*
*uda beteko beroan*
*dakidalako irauten duela*
*orainak ere geroan*

ZURE LEHENGUSUEK

### URTEURRENA

**Luis Agirre Orbe**



Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 4an, 12:00etan, **Elgeta**ko parrokian

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

### ESKER ONA

**Consuelo Sierra Segovia**



**Bergara**n hil zen 2003ko apirilaren 21ean, 96 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.*

*Aurrezki Mistoa* | **EUSKADIKO KUTXA**



Zure inbertsioaren erdia
jenerotan doakizu.
Goza ezazu.

## Beste erdia bermatuta duzu.



**RONCATO**
maleta-jokoa eta nezeserra
3 urteko nazioarteko bermea

Aurrezki Misto Bereziari esker, bi inbertsio-mota konbinatu ahal izango dituzu: erdia Epe Finkoan, urtebeterako eta jenerotan ordainduta, eta beste erdia, Ahorro Bolsa Garantizadon, 30 hilerako. Anima zaitez eta inbertitu seguru 5.000 e-tik aurrera. Eskaintza hau 2003-05-27ra arte izango da indarrean. Informazio gehiago Euskadiko Kutxaren sukurtsal-sarean edo 901 333 444 telefonoan.

*Zurekin elkarlanean*

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

# 'Gazte Borraste'-ren azkeneko saioa izango dugu datorren eguaztenean

*Gazteak kezkatzen dituzten gaien gaineko mahai-ingurua egingo dute*

AINTZANE IRIZAR

**Aste Santuko oporraldiaren ondoren, astelehenaz gero ohiko martxan dihardute GOITBkoek. Datorren astean, eguazten iluntzean, hain zuzen ere, *Gazte Borraste*-ren denboraldiko azkeneko saioa eskainiko digute; gazteak kezkatzen dituzten hainbat gairen gaineko mahai-ingurua ikusteko aukera izango dugu.**

Aurtengo denboraldian estreinatu du GOITBk *Gazte Borraste* saioa; saio horretan, hain zuzen ere, gazteekin lotutako gaien gaineko hainbat mahai-inguru egin dituzte: sexuaren, etxebizitzaren eta drogen gainean, esate baterako. Gutxi gorabehera hilean behin gai baten gaineko mahai-ingurua ikusteko aukera izan dugu denboraldi honetan. Kepa Errasti eta Naroa Elortza kazetari gazteek gidatzen eta aurkezten dute mahai-ingurua.

Datorren eguaztenean, maiatzaren 7an, denboraldiko azkeneko saioa ikusteko aukera izango dugu.

Azkeneko saio horretan gazteak kezkatzen dituzten gaien gainean jardungo dute Debagoieneko eta kanpoko hainbat gaztek. Honako gazte hauek, hain zuzen ere: Iñaki Kortazar, Joseba Gabilondo eta Haika Aizpurua eskoriatzarrek eta Beñat Solabarrieta oriotarrak.



GOITB

Kepa Errasti eta Naroa Elortza *Gazte Borraste*-ko aurkezleak.

# ELAko komunikazio arduradun German Kortabarria irratian

*Arrasate Irratia FMko 107.7an aurkituko duzu*

MARIA AGIRRE

**Maiatzaren 1eko zubian Arrasate Irratiak jai hartuko du, baina irratian egongo da zer entzun. Horretarako, ohiko moduan, hainbat elkarrizketa prestatu ditugu. Elkarrizketa horiek guztiak 09:00etan errepikatuko ditugu maiatzaren 1ean eta 2an. Zapatuan eta domekan, berriz, 11:00etan izango dituzue entzungai.**

Maiatzaren 1ean Langileen Nazioarteko Eguna dela eta, German Kortabarria ELA sindikatuko komunikazio arduraduna elkarrizketatu dugu Arrasate Irratian. Elkarrizketa hori, baina, datozen egunotan berriro entzuteko aukera izango duzue entzuleok.

Era berean, Mikel Irizarrekin maiatzeko hauteskundeen gainean izandako solasaldia ere errepikatuko dugu. Alderdiek dagoeneko aurkeztu dituzte zerrendak Arrasaten, eta ageri diren hautagaien gainean iritzia eman du Irizarrek.

Bestalde, pneumonia asiarra ekonomian izaten ari den eragina hizpide izan dugu Juan Ramon Arriolabengoarekin, Fagor Automotion kooperatibako langilearekin. Eta Txina ezagutu guran, Jon Abril kazetaria elkarrizketatu dugu, hantxe egon da-eta orain dela gutxi.

Telebistaren gaineko elkarrizketarik ere izango da, Susana García arrasatearrak ETB2ko *Date el bote* lehiaketan parte hartu du-eta, eta 1.500 euro irabazi. Horiek eta beste hainbat elkarrizketa izango dituzue, bada, Arrasate Irratian, datorren aste bukaeran. Musika ere, jakina, lagun izango duzue egun osoan FMko 107.7an.



GOIENKARIA

German Kortabarria, ELAko arduraduna.




GOIESKOLA

Debagoieneko Euskal Eskola Publikoa




# BATXILERGORAKO AURREMATRIKULAZIO EPEA ZABALIK

## Maiatzaren 2tik 9ra

**ARRASATE ARETXABALETA INSTITUTUA**

**Batzar informatiboa / ate irekiak**
**Maiatzaren 7an, 18:30ean**

Helbidea:
Arrasate Aretxabaleta BHI
Santa Teresa 25
Tel.: 943 79 44 47 / 943 79 79 00
www.goieskola.net/iarrasatearetxabaletabhi

**IPINTZA INSTITUTUA BERGARA**

Helbidea:
Ipintza BHI
Boni Laskurain 19
Tel.: 943 76 31 42
www.goieskola.net/ipintzabhi

**R.M. ZUAZOLA-LARRAÑA OÑATIKO BH INSTITUTUA**

Helbidea:
R.m. Zuazola-Larraña BHI
San Lorentzo auzoa z/g
Tel.: 943 78 21 50 / 943 78 12 08
www.onati.net

**Goienkaria** ©
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**Argitaratzailea:** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
**Egoitza nagusia:** **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
**Ordezkaritzak:** **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
**Aretxabaleta** 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
**Publizitatea:** **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 21.500 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

EGUAZTENA, 2003ko apirilaren 30a

*Atzeskua*

EDU MENDIBIL

# Gotzon Barrenetxea-Arando/ Erretiratua

**Erramu-domekarako gurutzeak egiten jarraitzen duzu. Zenbat egin dituzu aurten?**

Guztira 2.500 egin ditut, joan den urteko antzera. Orain dela 40 bat urte hasi nintzen gurutzeak egiten. Hainbat tamainatakoak egiten ditut, zortzi bat neurrikoak. Txikienak 12 mm-koak izaten dira (horrelako 500 bat landu ditut), eta handienak, hiru metrokoak. Handiak Santa Marinako parrokiako Erramu-domekako prozesioan erabiltzeko dira. Nik aspaldi daukat bertan parte hartzeko ohitura: aurten ere hiru seme-alabak eta suhia etorri dira nirekin gurutzeak eramatera.

**Zerk ematen dizu lan handien, gurutzeak egiteak ala horiek guztiak banatzeak?**

Gurutzeak egitea izaten da zailena. Udaberri aldean hasten naiz, arbolak izerdia daukanean komeni delako sahatsaren egurra batzea. Egurra Ipintza aldean eta Angiozar bidean dagoen Aldai baserriaren inguruan batzen dut. Gero, egurra zuritu eta lanean hasten naiz. Eta Erramu-domekarako hiru bat aste falta direnean, ereinotza eta erromeroa jartzen diet gurutzeei. Lan handia da. Aurten 1.000 bat ordu emango nituen lanean. Gurutzeak banatzeak ere denbora dezente eskatzen dit. Oraindik ere banatzen dihardut.

**Nori banatzen dizkiozu gurutzeak?**

Jende askori: familiakoei, lagunei... Konpromiso asko izaten ditut, benetan ikaragarria da. Eskuetatik kentzen dizkidate gurutzeak. Madrilgo bi komentutara ere bidaltzen ditut, Bergarako bi moja daudelako han. Eguazten Santuan Uriarte gotzainak artzapezekin egiten duen batzarrera ere bidaltzeko ohitura daukat. Eta Europara eta Ameriketara egin ditudan bidaietara gurutzeak eraman izan ditut beti.

**Bedeinkatutako gurutzeak izango dira denak...**

Bedeinkatu barikoak ez ditut banatzen. Mojei bakarrik bidaltzen dizkiet bedeinkatu barikoak, eurek bedeinka ditzaten. Jainkoaren babesa eskaini nahi diet gurutzeekin, lehengo ohiturari eutsiz. Jendeak autoan edo diru-zorroan eroateko, ortuan sartzeko edo paretan zintzilikatzeko erabiltzen ditu. Elizara joaten ez direnek ere eskatzen dizkidate. Jendeak asko sinesten du horrelakoetan; zerbaitegatik izango da, ala?

**Arotza izandakoa zarenez, erraz landuko duzu egurra, ala?**

Bai, baina pazientzia, bista eta pultsu ona beharrezkoak dira. Hala ere, azken urteotan bista dezente galdu dut. Kataratetatik operatzeko zain nago, eta alaba urtero harritu egiten da ni lanean ikustean. Gustura egiten dut lan hori, baina ez dakit datorren urtean gurutzeak egiterik izango dudan. Ea goikoak laguntzen didan...



**“Orain dela 40 bat urte hasi nintzen Erramu-domekarako gurutzeak egiten; aurten 2.500 egin ditut”**

**“Elizara joaten ez direnek ere eskatzen dizkidate; konpromiso asko izaten ditut”**

**“Bista dezente galdu dut; ez dakit hurrengo urtean egiterik izango dudan”**

*Bergarararra / 79 urte / Erramu-domekako gurutze egilea*

## PIPERRAUTSA

### *Catalunya*

Xabier Letek deitu zion ‘anaia zuhurra’ Kataluniari, aspaldiko kanta zaharrean. Herri menderatu garen aldetik anaia. Eta zuhurra, nik uste, hormaren kontuagatik. Badoaz euskalduna eta katalana bidean, eta horma itsu bat aurkitzen dute. Ezin aurrera egin. Euskalduna hasten da buruaz horma jotzen, botako duelakoan. Eta katalana ertzak miatzen, ea saihesteko modurik dagoen. Gu zuzenak, haiek zuhurrak.

Katalunian eman ditut opor egun batzuk. Bainuetxera joan naiz, ez katalanekin egotera. Eta, hala ere, iritsi zaizkit anaitasunezko zipriztinak. Adibidez, Sant Jordi egunean, plaza arrosez eta liburuz betean, Ikurrina bat ageri zen. Eta biharamunean, Avui egunerokoan jakin nuen harrituta Egunkaria atera zutela bezperan katalanez. ERCkoen bitartez lortu nuen ale bat. Mardula da, 32 orrialde, hangoek egina hemengoen laguntzaz, eta 30.000 ale banatu ziren doan. Gai honetan busti egin dira anaia katalanak.

Zuhurtziarena ez da hain nabaria. Baina aurki daiteke bizpahiru artikulu edo gutun irakurrita. Nik oraingoan susmoa hartu dut Katalunia ari dela konstituzioaren horma itsua miatzen, ea aurrera egiteko zirrikiturik aurkitzen duten. Ez dute geratu nahi dauden tokian, hori argi dago. Eta begi ertzetik zelatatzen gaituzte, ea gure burukadek horma pitzatzen duten.

Txarra ez guk ere haiek zelatatzea. Eta hobe lankidetzan aritzea.

MIKEL IRIZAR

